

hiruka

172. zenbakia
2021eko ekaina

XABIER MADARIAGA Kazetaria

«Ez gaitzala
inpartzialtasunak
itsutu»

KAISHOP! GINKANA

Anima zaitez **Getxoko Euskararen Lagunak** saltokiak ezagutzera!

EKAINAK 1, 3, 8 ETA 9



Saltokietatik egindako ibilbideekin **opari asko lortu** ahal izango dituzu gure **Ginkanan!**

**4 produktu-opari
sorta
+
100 euroko
4 bono**

*Getxoko euskararen laguna
saltokietan erabiltzeko*

Hartu parte
ginkana
birtualean!

**100 euroko
2 txartel**

*Getxoko euskararen
laguna saltokietan
erabiltzeko*

**Getxoko
Euskararen
Lagunak**



GINKANAN PARTE HARTU NAHI DUZU?

Informazio gehiago: www.getxo.eus/euskara

 @KaiShopKanpaina

 @Kaishopeus

 @Kaishop.eus

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



Getxo
bizi ezazu

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Helduentzako Hezkuntza Ikastetxea, barru-barrutik
- 14 Euskarari, atara kontuk!
- 15 Naturaren behatokitik
- 16 Larrubizi
- 17 Zientzia etxeak atarian
- 18 Hirudika: Ibilaldiak utzitakoak...
- 24 Mundukatuak
- 25 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 Xabier Madariaga kazetariagaz solasaldia
- 30 «Niretzat, hau artelan bat da»
- 31 «Gizon baten izenordain baten atzean ezkutatzeari utzi nahiko nioke»
- 32 Zinez diot eta Irakurrian
- 34 «Maila onenean jarri dugu nesken waterpoloa»
- 35 Easygas eskubaloi taldea, mailaz igotzeko zain
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Julen Nafarrate, Karlos Aretxabaleta Txapel, Joanes Atxa, Eduardo San Andres, Xabier Buenetxea, Jokin de Pedro eta Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Bizitzaren azterketak

JANIRE ENZUNZA LANDA Filologoa eta irakaslea



Ohikoa izaten dot azterketak prestatzen eta zuzentzen ibiltea, lana dala eta. Horretan, bai ikasleek, bai nik neuk, euren ezagutzen eta trebetasunen barri izaten dogu, eta hurrengoetarako bidea erakusten deuskue. Batetik, ikasleek jakin daikie martxa onean dabilzan ala ez, eta, bestetik, jakin daiket arteragoko asteetan landutakoa ulertu daben edo azterketea aproposa izan dan.

Baina, ohiko ikasgaiez ganera, badago zer ikasi bizitzan, ikastetxean eta hortik kanpo. Horixe gogorazoten deutset ikasleai, baten batenganako errespetu faltarik egitean edo alkarbizitza- arauak ez beteteen. Askotan esaten deutset akaso testu-liburuetan ez dagozan irakaspenak garrantzitsuagoak dirala, eta eremu guztietan erabili beharrekoak.

Izan bere, bizitzeak eten barik egiten deuskuz hainbat proba, sarritan ez dogu denpora nahikorik izaten prestatzeko, eta beti ez da erraza aprobetea. Baina, ikastetxean lez, ikasturtea zelan hasten dan baino inportanteagoa izaten da kontua zelan akabaten dan. Halanda ze, bat- batean bizitzeak azterketa gaxen bat egiten badeusku, jarrereak izan behar dau zelan egin hobera edo aurrera; eta, laguntzarik behar izan ezker, albokoai lotsa barik eskatzea.

Super-heroia

JOXE BELMONTE Idazlea



Txikitan, super-heroia izan nahi nuen, hainbat umek bezala, baina beti izan nuen argi nire super-boterea ez zela hegaz egitea.

Naturarekiko gaitasunik ez nuela jabetzeaz, lanbide arruntaz pentsatzen hasi nintzen. Ikastea gustatu bai, baina ez zitzaidan buruan ezer geratzen. Argi zegoen beste gauza batzuetarako egina nengoela.

Botika-enpresa batera joan nintzen, produktuen saltzailea izateko. Hara non kabroi horiek ingelesa eta frantsesa eskatu zizkidaten; bat barik, bi hizkuntza.

Beste batean saiatu nintzen, industria-makinarira emana, baina bulegoan lan egiteko. Ingelesik bai? Baietz esan nien, ingelesa baneukala. Hiru egun, Alemaniatic hiru dei, iraun nituen enpresan. Nik ingelesa eduki bai, baina oso gordeta, eta ez nuen topatzen; seguruenik alemaniar horrek, berdin. Ez genuen elkar ulertu. Baina hori guztia suertea izan zen, txikitako ametsetara itzuli nintzelako. Beharbada super-heroia ez, baina heroi kategoriara behintzat helduko nintzateke. Suhiltzailea izango nintzen.

Uf! Proba fisikoak oso gogorak. Ezinik.

Fisikoki erdi prestatuta nengonez, udaltzain. Oinarriak ikusi eta hara non kabroi hauek euskara eskatzen duten. Salatu egingo dut. Bazterkeria halakorik!

Puntua eta kontrapuntua **Helduentzako hezkuntza**

Jakituraren adina

*Ikasketak utzita
gazte nintzelarik,
orduan ez bait nuen
eskolen beharrik.
Berrogei urte ditut
beteak jadanik,
EPAn apuntatzea
erabaki dut nik;
zeren jakinduriak
ez baitu adinik*

**PERU
DE PEDRO
LARREA**
Gorliz

*Batuketak, kenketak,
π, batezbesteko...
Everest, Ibaizabal,
Sahara, Alepo...
Oteiza, Curie, Poe,
Luxemburgo, Greco...
Izenorde, sintagma...
Obiparo, geko...
Oraindik zenbat gauza
dudan ikasteko!*

**DANIEL
DE MIGUEL
AVECILLA**
Getxo



Arane, Lier, Lucas, Aiala, Ekain, Mikel, Iñigo, Eñaut, Aiur eta Alai Malakateko umeak

«Hau da aske izateko dugun leku basati bakarra»



Getxoko Malakate inguruan euren landa defendatzeko prest agertu da ume talde bat, bertan etxebizitzak eraikitzeko proiektuaren aurrean.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Tik tok, Snapchat eta Instagramen garaian, badira oraindino sastraken artean olgetan ibiltzea gustuko duten umeak. Getxoko Malakate inguruan topatu ditugu batzuk, eurentzat *guarida* izeneko txokoan: «Hau da aske izateko dugun leku basati bakarra». 8 eta 9 urte bitarteko haur hauek mundu berezi eta irudimentsua sortu dute bertan, eurek bakarrik ulertzen duten hizkuntzan: objektu galduen zuhaitza, ipurdi forma duen harria... Zabuak dituen parke bat gertu duten arren, ez dute zalantzarik egiten: «Nahiago dugu hemen egon mila parke edo zabuetan baino».

Baina *guarida* honek agian ez du luzaroan iraungo, bertan etxebizitzak eraikitzea aurreikusita dagoelako. «Tris-

te» agertu dira, euren gotorlekua galtzeko aukera izan dezaketelako: «Hau da ondo pasatzeko topatu dugun lekua, guretzat garrantzitsua da». Obretako langile eta hondeatzaileak bertara heldu zirenean, bihurrikeriaren bat egin zieten euren lurra defendatzeko: «Gaur bertan, ikastolan ikasi dugu nolakoak diren ekosistemak, eta hemen egingo dutena ekosistemari eraso da». Hala ere, alde egitera behartzen badituzte, beste lekuren bat topatu dute jada, «baina ez dizuegu kontatuko non dagoen, badaezpada».

Txorizo eta txokolate bokatak eskuan, han-hemenka ibiltzen dira umeak landa honetan. Baina zer egiten dute bertan? «Jolastu!» diote ahobatez. «Harrapatzera, ezkutatza, animaliak topatzera...». Helduak ez dituzte onartzen euren *guarida*-n, guk ez dugulako euren mundu berezia guztiz ulertzen. Baina salbuespenak egiten dituzte: «Umeak bakarrik onartzen ditugu hemen. Beno, zuek berriro etortzen bazarete, zuek bai».

Eskerrik asko zuen leku sekretua gurekin partekatzea-gatik, Arane, Lier, Lucas, Aiala, Ekain, Mikel, Iñigo, Eñaut, Aiur eta Alain! ◀

Helduentzako hezkontza: bigarren aukeren alde borrokatzeko eskola





Askotarikoentzat oinarrizko prestakuntza aukera ematen du Helduen Hezkuntzak. Izan ere, alfabetatzetik Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeraino doan prozesua eskaintzen du; horrez gainera, etorkinen gizarteratzea ahalbidetzeko hizkuntza-ikastaroak ditu aukeran, besteak beste.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES · OSKAR GAZTELU ▶**

Lamiako auzoko kaleetan askotariko pertsonak ikus daitezke joan-etorrian, metro-geltokira sartu-irtenean, motxila bizkarrean edo karpeta eskutan, eskolarako bidean. Umeak, gazteak zein helduak, denek egiten dute bat bidean; Langileria kaleko 106 zenbakiko ikastetxerako noranzkoan doaz guztiak. Neska-mutil gazteenak Lamiako Eskola publikora doaz, goizez, ohiko ordutegian, gainontzeko ikastetxeetako irudiak birproduzituz. Eurakaz batera, baina, bestelakoak ere nahasten dira: ohikoa da bide horretan adineko gizon-emakumeak –bigarrenak batez ere– topatzea, isil-isilik edo ingurukoakaz berbetan; haien ondoan, Saharaz hegoaldeko zein Hego Amerikatik etorritako hainbat gazte ikus daitezke, baita bertoko zenbait heldu ere. Horiek guztiek bide berdina egiten dute egunero, eskola publikoaren ondo-ondoan dagoen Helduentzako Irakaskuntzarako zentrorakoa, alegia.

Ohikoa izaten da, hezkuntzaren inguruan berba egitera-koan, ume, gazte eta nerabeen ikaskuntza-prozesu formala izatea buruan, behetik gorakoa. Guzti-guztiok, edo gehienok, bizi izandako bidea da hori, haur-eskolatik hasi eta, kasuan kasu, unibertsitaterainoko tartea hartzen duena. Helduek, aldiz, adin batetik aurrera, ez dute ikasteko paradarik izaten, ez behintzat oinarrizko hezkuntzari dagokionez. Halere, ikasketa-bideak hamaika adar ditu, eta gizon-emakume guztiek ez dute zuzenekoena jarraitzeko aukerarik izaten. Beste askok, aldiz, gura etorri berriak direnek kasu, adinez nagusiak direnez gero, eta bestelako ikasketa homologaturik ez dutenez, Helduen Hezkuntzarako Ikastetxea (HHI) izan ohi dute bide bakartzat oinarrizko prestakuntza jaso eta, gura izatekotan, Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ondoren, batxilergo batera edo maila ertaineko heziketa-ziklo batera joateko.

Inguruotako HHI sei egoitzetan banatuta dago, Lamiakokoa nagusia izanik; gainontzeko zentroak Derion, Erandion, Getxon, Sopelan eta Mungian daude. Horiek guztiek, gaur egun,



Hanan Al Aoudati

Adina: 42 urte.

Jatorria: Tamarkalt (Maroko).

Adin-nagusitasuna eskuratu eta segituan alde egin zuen Marokotik; 18 urte zituen eta, ordutik hona, hainbat lanetan ibili da, hala nola garbitzaile gisa, pertsona nagusiak zaintzen eta hainbat enpresatan askotariko beharrak betetzen. Hala ere, lana ikasketakaz uztartu du eta, horri esker, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu-titulua eskuratu du aurten. Bere asmoa orain ikasten jarraitzea dela aitortu du, eta aukera horrek ilusio handia egiten dio.



Maip Niang

Adina: 27 urte.

Jatorria: Senegal.

Orain lau urte heldu zen gurera ibilbide luze eta gogor bat egin ondoren: Senegal, Mali, Burkina-Faso, Niger, Libia, Italia eta Euskal Herria. Azaldu duenez, Senegalgo wolof hizkuntza erakusten zuen bere herrian. Hemen, aldiz, DBHko titulua eskuratzeko azkenengo urtea egiten ari da HHI; bitartean, kalean saltzen ari da. Bere asmoa da, titulua eskuratu ondoren, maila ertaineko Lanbide Heziketako graduren bat egitea. Horrez gainera, bere bidaia historia idatzi gura du noizbait, bere seme-alabek jakin dezaten ze zaila den batzuentzat bizitza.



Arantza Velasco

Adina: 41 urte.

Jatorria: Sondika (Bizkaia).

Arteako Eroski supermerkatuko arrandegian 20 urte pasatxo darama lanean sondikar honek. Bizitzaren erdia eman du zeregin horretan, baina bizitzari buelta bat eman guran, HHI izena eman zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu-titulua eskuratzeko. Daborduko lortu du hori, bikaintasuna lortuta, eta, orain, maila ertaineko Lanbide Heziketa gradua ikasten dabil, mekanizatuaren arloan.

994 ikasle hartzen dituzte eta, Oskar Gaztelu ikasketa-buruak azpimarratu duenez, horien herena -300 inguru- atzerritarrek dira. «Gurera etorri berriak dira gehienak; 35 nazionalitatekoak ditugu». Ildo horretan, irakasleak nabarmendu du zentroko beharrezko lan garrantzitsua egiten dutela gizartearen alde: «Ikasleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute eta pertsonen arteko sare komunitario indartsuagoa eta erresilienteagoa eragiten dute, besteak beste».

HIRU IKASLE MOTA: HIRU BLOKE. Gazteluk azaldu duenez, HHIko ikasleak hiru multzotan bana daitezke, bloke ezberdinetan. Alde batetik, DBHko titulu ofiziala eskuratu gura dutenak daude lehenengo blokean; hainbat arrazoi direla medio, bere garaian oinarrizko ikasketak amaitu ez dituzten edo eskolara joaterik izan ez duten 18 urtetik gorako gizon-emakumeek osatzen dute hori. Gazteluk azaldu duenez, ohiko bidea jarraituta, lau urte kurtsatu behar dira graduatzeko; HHI, aldiz, curriculum egokituta dago eta, ondorioz, posible da titulua urte bian eskuratzeko.

Bigarren blokean, aldiz, modu orokorrean euren burua prestatzen segitu gura duten helduak daude, aktibo jarraitu gura dutenak,



Leioa HHI

Bertoko Helduentzako Hezkuntza Ikastetxeak sei zentro ditu: Derio, Erandio, Getxo, Lamiako, Mungia eta Sopela. Horieta, DBHko titulua eskuratzeko kurtsoak, Lanbide Heziketarako eta unibertsitaterako sarbide-ikastaroak eta atzerritarrentzako euskara eta gaztelania eskolak eskaintzen dituzte, doan.

alegia. Talde horretan adineko emakumeak egon ohi dira: «HHI bide bat izan da prestakuntza kultural integrala jasotzeko aukerarik izan ez zuten adineko emakume askorentzat. Gainera, nolabait, besteekin sozializatzeko baliatzen dute ikastaroa; elkartzeko gune gisa hartu dute hau, talde-lagunak egin dituztelako hemen».

Azkenik, hirugarren taldea bertoko hizkuntza ofizialak -gaztelania edo euskara- menperatzen ez dituzten etorkinena da. Gazteluk ohartarazi duenez, azken multzo honetan parte hartzen duten gizon-emakume gehienak «zerotik» hasten dira: ez dakite bertoko hizkuntzetan berba egiten, ez dituzte ulertzen, ez irakurtzen ezta idazten ere. Gizarte batean, komunikazioa behar-beharrezkoa da eta, hartara, elkar ulertzeko gaitasuna ez duten pertsonen zail izango dute bizitzan aurrera egitea. Hori dela eta, helduentzako hezkuntzarako ikastetxeok, ahal duten neurrian, euren aletxoak jarri gura dute gurera etorritako migratzaile horiei komunikatzeko tresnak irakasten.

Azken talde horri dagokionez, Gazteluk azaldu du 10 talde dituztela gaur egun, gaztelania ikasteko bideratuta daudenak. Hala ere, nabarmendu du beste bat dutela, euskaraz-



Alassane Camara

Adina: 29 urte.

Jatorria: Hassi Chegan (Mauritania).

Mauritaniako sininke da bere ama-hizkuntza. Han bizi zela, saltzaile, gidari eta beste mota batzuetako lanetan jardun zuen. Hala ere, orain dela hiru urte gurera etortzea erabaki zuen. Hala, ikasketak egite aldera, HHIn izena eman eta aurten amaitzekoa du DBHko titulua eskuratzeko bidea. Iragarri duenez, bere asmoa da laster mekanika-robotikari lotutako ikasketaren bat egitea.



Graciela Olaya

Adina: 53 urte.

Jatorria: San Antonio (Kolonbia).

Hogei urte zituela etorri zen gurera. Bizitza erdia baino gehiago eman du Euskal Herrian eta, tartean, zaharren egoitzetan, garbiketa-lanetan eta ostalaritzan egin du lan; azkenengo 15 urteotan Larrabetzuko Etorri tabernan ibili da beharrean. Azaldu duenez, bere alabak eta senarrak animatuta eman zuen izena HHIn, eta, aitortu duenez, bere ilusioa da unibertsitate-karrera bat ikastea, baina helburu finkorik gabe.



Felipe Augusto Tavares de Lima

Adina: 25 urte.

Jatorria: Salvador de Bahía (Brasil).

Lerrootako gazteena 12 urte zituela iritsi zen Euskal Herrira. Urte horietatik guztietatik erdia eman ditu HHIn ikasten. Horri esker, aurten aukera izango du DBHko titulua ateratzeko. Hori lortuz gero, ondoren, erizaintzako laguntzaile izateko Lanbide Heziketako zikloa egitea gustatuko litzaiokeela aitortu du.

koa. Inguruotan normala denez, atzerritarrek gaztelania ikastera jotzen dute automatikoki, aukera gehien zabaltzen dieten hizkuntza delakoan. Hala ere, gero eta gehiago dira euskara ikasi gura dutenak, haien seme-alabak eredu euskaldunetan eskolatzen dituztelako eta beharrezkoa ikusten dutelako eurak ere euskararen murgiltzea haurrei etxerako lanetan eta lagundu ahal izateko.

IKASLE-MIGRATZAILEEN BIZIPENAK. Ikasketak-buruak nabarmendu du ikasle-migratzaile bakoitzak bide konplexua igaro behar izan duela gurera ailegatzeko, «kontatzekoa eta pelikula bat egiteko moduko bizipenak dituzte». Berbarako, gerretatik ihesi egin behar izandakoak heldu dira Lamiakora, baita hainbat herrietatik errefuxiatu gisa etorri direnak ere. «Esan beharra dago, kasuotan, haien ilusioa nabarmena dela ikastetxera sartzen direnean. Izugarritzko ahaleginak egiten dituzte, eta euren esker-onak ez du parekorik».

Hartara, aniztasuna eta belaunaldien arteko bizikidetza dira Leioako Helduentzako Hezkuntza Ikastetxea nabarmentzen dutena. «Adinen arteko ezberdintasuna, jatorri ezberdinetako pertsonen aniztasuna eta adine-

Hezkuntza ez-arautua

Bloke ofizialakaz batera, Leioa HHIk beste kurso batzuk eskaintzen ditu, hala nola ingelesa, tertulia literarioak eta informatika.

Matrikulazioa egiteko epea

Datorren ikasturterako matrikulazio-epea ekainaren 15etik 30era artekoa izango da; ondoren, irailean ere aukera egongo da.

ko emakumeei aukerak bermatzea dira gure erronka nagusiak», Gazteluren berbetan.

BESTELAKO HEZKUNTZA EREDU BAT. Ikasketak-buruak azaldu duenez, «ikusi egiten ez den» hezkuntza da helduentzakoa, «itzalean dagoen espazioa da hau». Deitoratu duenez, orokorrean, Hezkuntza Sailaren barruan dagoen arren, Administrazioak ez du balioan jartzen nagusientzako hezkuntza. Horren aurrean, eredu horren indarra eta beharra azpimarratu eta nabarmendu du Gazteluk.

HHIn darabilten hezkuntza-eredua «alderantzizkoa» da, goitik behera doana. Hau da, curriculumak, ikasi beharrekoa, ikasleen beharrei egokituta dago. «Ohiko hezkuntza-sisteman arazo tipiko bat da exijentzia-maila zehatz bat dagoela eta ikasle guztiei eragiten diela. Hori dela eta, nire ustez, pertsona, ikaslea, ez da erdigunean jartzen ikasketak-prozesuan, eta porrota eman daiteke. Aldiz, pertsona erdigunean dagoenean, horrek ahaleginak egingo ditu eta, edukiak bere egoera pertsonalera egokituz gero, gai izango da edozer gauza gaintzeko», ondorioztatu du Gazteluk. Premisa horretan, HHIn pertsonalizatu egiten dira edukiak ikasleen egoeretara, eta taldeak berak bideratzen ditu gauzak. ◀

Getxo Maiatzaren 31tik ekainaren 4ra

Bost egunez, euskaraz bizitzeko erronka

Belaunaldi ezberdinetako Algortako 5 auzokidek 5 egunez euskaraz bizitzeko erronka abiatu dute, «Algor7arrak Bat» izeneko kanpainaren barruan.

Auzoko hainbat kide eta mugimendu sozialek bultzatuta, belaunaldi ezberdinetako 5 auzokidek 5 egunean euskaraz egiteko erronkari heldu diote, maiatzaren 31tik ekainaren 4ra bitartekoa. Ariketaren helburua nagusia da herrian euskaraz bizitzeko topatzen dituzten muga zein arnasmuneak identifikatzea.

Peio Lago (17 urte), Uxue Pradera (27 urte), Urko Uriarte *Ruke* (48 urte), Amaia Garamendi (60 urte) eta Marga Bravo (68 urte) izango dira erronkariak, eta euren egunerokoaren berri emateko bideo ezberdinak argitaratuko dira HIRUKAko webgunean.

EUSKARARI HELDU BEHARRA. kimen horretako antolatzaileek gogoratu dutenez, azkenengo asteotan euskarari lotutako albiste zein ekimenez josita egon da, onak zein txarrak: «Iruneko udaltzaingoaren harira ateratako epaia oso larria da eta euskararen normalizazioaren bidean atzerapauso handia suposatu dezake. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian murgiltze eredu bertan behera utzi izanak kolpe gogorra suposatu du, urteetako lanaren



Adin-tarte ezberdinetako bost lagunek heldu diote erronkari. ALGOR7ARRAK BAT

«Euskararen alde egindako lan horrengatik ez balitz, nekez egongo ginateke gaur egungo egoeran, eta hala ere, ez da nahikoa»

KANPAINAKO BULTZATZAILEAK

ondorioz posible izango zen horri berriro ere atea itxiz. Halako kasu larriek gure hizkuntzaren egoera zaurgarria erakusten dute, gaur egun ere normalizaziorako bidean dituen oztopoak agerian jarritz». Hala ere, atzerapauso horiei aurre egiteko xedez, euskalgintzak zein euskal hiztunek euskararen aldeko lanean dihardute egunez egun, urtez urte. Horren adibide dugu egunotan eskualdean izan diren ekimen bi: Egizu elkarteak antolatutako Berbodromoa eta Ibilaldia. ◀

3. eguaztena	10. eguaztena	16. eguna	17. eguaztena
SAGARRAREN DENBORA dokumentalaren emanaldia	CAMINHO LONGE dokumentalaren emanaldia	HITZALDIA: Ekonomia Feminista (Marina Sagastizabal)	KAFE-TERTULIA: Aitor Elortzaren kide izandako Mikel Urizekin
19:00etan Abian Kultur Elkartean	19:00etan Villamonte Kultur Elkartean	18:00etan Abian Kultur Elkartean <i>neska* gazteontzako saioa</i>	19:00etan Abian Kultur Elkartean
instagram.com/abiankulturelkartea	facebook.com/abiankulturelkartea		

Sopela 15 gehi 5 urteko luzapena onartuta

Kirol-instalazioen kudeaketa 20 urtez azpikontratuko da

Sopelako gobernu-taldeak egindako proposamena onartu da; hala ere, oposizioak gaitzetsi du zinegotzi baten konexio-arazoak baliatu dituztela kiroldegiko kontratuari buruzko bozketaren emaitzak aldatzeko.

Maiatzaren 27an, oso-ko bilkura telematikoa egiten ari zirenean, Elkarrekin Podemoseko zinegotzi baten konexio-arazoak zirela eta, oposizio-ko taldeek -EH Bilduk, Elkarrekin Podemosek eta DBTuk- eskatu zuten prozesua mahai gainean uztea, edo bozketa atzeratzea, eragozpenak konpondu arte. Azaldu dutenez, gobernu-taldeak uko egin zion aukera horri, eta kirol-instalazioak azpikontratatzeko pleguak onartu zituzten, alkaterearen kalitatezko botoari esker.

Gogoratu beharra dago EAJ eta PSEk gutxiengoan agintzen dutela Sopelako Udalean, eta, azken hilabeteetan, eztabaida egon dela kirol-instalazioen kudeaketaren inguruan. Otsailean, gobernu-taldeak proposatu zuen 15 gehi 5 urteko luzapena izango zuen lizitazioa egitea, baina oposizio-ko taldeek proposamena atzera bota zuten. Argudiatu zuten denbora-tarte luzee-
gia zela, eta kirol-instalazioen uda-

lektotzea edo zuzeneko kudeaketa aztertzearen alde egin zuten.

Horren guztiaren harira, Guruzne Carrasson EH Bilduko bozemaileak salatu duenez, «agerian geratu da EAJk ez duela negoziatu nahi izan 20 urterako lizitazio bat eta kirol instalazioetan egindako inbertsioak bezalako gai garrantzitsu bat. Hain zerbitzu garrantzitsua adostasunak askoz handiagoa izan behar du. Azken finean, Sopelako kirol-zerbitzua hipotekatu egin da hurrengo lau legealdietarako».

LANGILEAK ABEEE-N. Bitartean, ELA eta LAB sindikatuek salatu dute kirol-instalazioetako 42 langileek Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEEE) jarraitzen dutela 2020ko martxotik; beraien egoera salatzeko manifestazioak egin dituzte azken asteotan. Era berean, jakinarazi dute enpresa-kudeatzailea beste kiroldegietan lanean ari dela, beraiek etxean dauden bitartean. ◀

Uribe Kosta Hondartzen erabilera

Iazko osasun-neurriak mantenduko dituzte hondartza-denboraldian

Ekainaren 1ean hasiera eman diote Bizkaiko 2021eko hondartzen denboraldiari. Iaz ezarri ziren COVID-19ari aurre egiteko osasun-neurriak errepikatuko dituztela erabaki dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko kostaldeko udalderriek. Hala, besteak beste, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izaten jarraituko du barnealdeetan, hondartzatik paseatzeko eta harea-tzetara sartu eta irteteko. Gainera, iazko sistema berbera errepikatuko dute hareatzen edukiera-maila jakinarazteko; sorosleak arduratuko dira neurrak horiek egiteaz. ◀

Uribe Kosta Aste Berdea

Mankomunitateak eta Getxoko Udalak hainbat ekimen antolatu dituzte

Ekainaren hasieragaz batera, Aste Berdea izeneko ekimena ospatuko da Europa osoan, baita gurean ere. Hala, besteak beste, Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxoko Udalak askotariko ekimenak antolatu ditu egunotarako ingurumenaren aldeko kontzientzia pizteko xedez. Besteak beste, tailerrak, ibilbide gidatuak, ikastaroak eta berbaldiak egingo dituzte. Antolatutako ekintza denak ikusi gura dutenek, HIRUKA.EUS webgunean izango dute ikusgai. Era berean, aipagarria da ekainaren 3an, Eskola Agenda 21 programaren baitan, egingo duten Udal Foroa Plentzian. ◀



AINGARA

BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

☎ 944 038 953

🌐 www.bordadosaingara.com

📍 Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo · GETXO



Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Uribe Kosta Jaiak, ezbaian

Aurten ere ez da ohiko udako jairik egongo gurean

Udako jairik gabe utzi gintuen pandemiak iaz. Aurten, baina, festak gutxika bueltatzen ari dira, eta udaldian egingo diren hainbat ekintza iragartzen hasi dira.

Aurten ere ez da udako jairik egongo, ez orain arte ezagutu ditugun formatuan behintzat. Izan ere, iazko etenaldiaren ostean, udalerrri gehienek festak antolatu beharrean, bestelako egitarau kulturala eskainiko dute. Gure inguruan, San Juan eta San Pedro jaiak ospatuko dira laster Barrikan, Leioan eta Sopelan, baina osasun-egoera aldakorra dela eta, antolatzaileek ez dute zehazterik izan zer egingo duten; halere, denek iragarri dute zerbait prestatuko dutela.

Getxoko sanisidroak bazter batean gelditu ondoren, gure eskualdean Leioako Lamiako auzoa izan da lehen frogia egin duena. Maiatzaren 28tik 30era ospatu zituzten jai birtuallak –iaz bezala–, herritarren parte hartzea eta entretenimendua bultzatzeko asmoz. Hala ere, Tanis Vega jai-batzordeko kideak onartu du aurten ez dutela iazko arrakasta berdina izan, eta jende gutxiagok parte hartu duela: «Iaz ere egin genituen jaiak eta jende asko animatu zen parte hartzera, nolabait berritasuna zelako; aldiz, aurten, parte hartzea nabarmen jaitsi da, jendea kalean dagoelako». Ekainaren akabuan sanjoanak ospatzekoak dira Barrikan



Ekainaren akabuan ospatzen dira sanjoanak Barrikan eta Leioan. HODEI TORRES

Pandemiaren ezohikotasunak ez du utziko jaiak ohiko moldean egiteko. Hala ere, Udalek iragarri dute festa-egunetarako zer edo zer egingo dutela. Horien berri emango dugu HIRUKA.EUS-en.

eta Leioan, eta arduradunek iragarri dutenez, zerbait berezi egingo dute egunotan. Sopelan sanpedroak ospatuko dituzte ekainaren 25etik 29ra; uztailen, aldiz, Karmengo jaiak izango dira, 16tik 18ra, hain zuzen ere. Zuriñe Cuesta udalerriko kultur teknikariak aurreratu duenez, adin tarte guztientzako hainbat ekintza prestatu dituzte, hala nola kontzertuak, tailerrak, bertso-saioak, dantzak eta kale-antzerkia. «Iaz ere ekintzak egin genituen uda osoan zehar, baina aurten, aldiz, jaiegunetan egingo ditugu ekintza berezienak. Hala ere, gainontzeko asteburuetan ere ekintzak antolatzen jarraituko dugu», iragarri du Cuestak. ◀

AEKn, UDA BATEK BIK BESTE BALIO DU
Euskara ikasi eta gozatu egingo duzu

aek
euskara praktikoa

2021 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailen.

Leioa: 944 6460 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus



www.aek.eus
673 200 100 / 946 464 000



Gure hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredua)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industrialak
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produkzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

**Hartu zure
etorkizunaren
agintea**

Kostuaren eta zerbitzuaren
arteko erlazio egokiena

#40 urte, milaka txori



AZKEN PLAZAK ESKURAGARRI!

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 · 48160 DERIO · Tel.: 94 403 40 60 · www.txorierri.net



HEZKUNTZA KOOPERATIVA INTEGRALA
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren
kudeaketan.

Euskarari, atera kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Arabako auzia, zaharra bezain bizia



Euskararen historiak joan-etorri asko izan ditu azken hamarkadetan zehar, eta horrek hainbat estereotipo sorrarazi ditu euskaldunengan. Hauek deseraikitzearekin batera, Uribe Kostako hizkeraren jatorria ezagutuko dugu. Goazen bada!

Igande arratsaldea zen lagun baten deia jaso nuenean. Asteburua mendi aldean igarotzeko asmoz, landetxe polit batera joan eta han igaro zituen bi egun. Ez zen horra joaten zen lehen aldia, txikitan, gurasoekin egonda baitzegoen. Baratze handia zuen etxeak inguruan, eta landa giroko bizi-modua antzeman zitekeen edonon. Hala ere, haserre deitu ninduen lagunak. Txikitan ikusitako idi eta astorik ez zegoen jada; haien ordeztako traktore automatikoek lantzen zuten lurra.

Orduan konturatu nintzen bere atsekabea baserri-bizitzaren inguruan zituen estereotipoek sortu zutela, eta antzeko sentipena izan nuen nik ere euskararen historian murgildu nintzenean. Begirada batez, euskalkiei buruzko bi estereotipo identifikatu ahal izan nituen.

Proposamen ugari egon dira euskalkien historia eta jatorriari buruz. Askok, antzinako euskal leinu edo tribuak gure hizkerarekin mintzatzen zirela uste zuten. Hara, hona lehen estereotipoa! Ikuspuntu idiliko eta erromantikoek gure hizkuntzaren historia zipriztindu dute sarri, eta ikerlariek ere zama horrekin aztertu behar izan dute euskalkien historia.

Hizkuntza orok, denboran zehar, aldatzeko joera du. Ez da kontu berria eta, hortaz, inork ez luke pentsatuko Lemoizko gazteek eta an-

Lehenengo estereotipoa

«Askok uste izan dute euskalkiak antzinako euskal leinu edo tribuek erabiltzen zituztela, eta hortik datozela euskalkiak»

Bigarren estereotipoa

«Arabako euskara Bizkaiko eraginaren menpeko hizkera ahultzat hartu da sarri, baina egia dena da Arabak gidatu zituela mendebaldeko euskararen nondik norakoak»

tzinako baskoiek euskara bera hitz egingo luketenik, inondik inora ere! Euskararen historia aztertzeak dakartzan zailtasunak kontutan hartuta, gaur egun atera dezakegun ondorio argiena da euskalkiak V-VI. mendean hasi zirela garatzen. Ordutik, gutxika-gutxika hizkerak banatuz eta adarkatuz joan dira, eta hala jarraituko dute.

Badirudi banaketa hartan lehena ekialdeko eremua izan zela, alegia, Zuberoako eta Erronkari aldeko bailarak. Ondoren etorriko zen gure herrietako hizkeren adarkatzea, bai, mendebaldeko euskalkiarena; Bizkaia, Araba zein Gipuzkoako eremu zabalak hartu zituen mende horietan zehar.

Arabako euskara, ordea, Bizkaiko eraginaren menpeko hizkera ahultzat hartu da sarri, tropelaren azken txirrindularia balitz bezala, mendatea ezin igo, mingaina kanpoan eta izerdia bekokian. Hortxe duzue bigarren estereotipoa!

Bada, gero eta argiago dago ez zela hala izan. Arabako lautadak eta Gasteizetik gidatu zuten aspaldi mendebaldeko euskararen tropela. Urkiolako bihurguneetatik behera, herri eta hiri guztietako hizkeretan gaur arte iraun duen arrasto nabaria utzi du. Tira, ez ote zen Arabako euskara traktore automatiko izango? ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Eguneko harrapariak: Belatzak



Nor ez da gelditu begira altueran geldi, dena zelatatzen dagoen puntu horri? Nork ez du sentitu inbidia aireagaz duen dantzatzeko moduagaz? Mirotzak izenagaz ezagutzen ditugun egun-argiko harrapariok, miretsiak eta jarraituak, berez, mundu bat dira.

Hegaztiak dira zale gehien erakartzen dituen talde faunistikoa; seguruenik ikuserrazak direlako, baina, batez ere, hegoakaz hegan egin eta desager daitezkeelako airea zeharkatuta; pentsamenduen, ideien, bidaien eta amets mentalen elementua, hain zuzen ere. Ezaugarri horiek guztiak bereziki betetzen dituen talde bat dago: eguneko harrapariak.

Gure artean urte osoan zehar bizi diren harrapariak daude (sedentarioak), beste batzuk udaberriro bueltatzen dira ugaltzeko (udaldikoak), neguan gurera etortzen direnak ere daude (negutarrak), eta beste batzuk, aldiz, migrazioetan (iragaitzazkoak) edo noizean behin (istripuz) hemendik igarotzen dira. Batzuk planeatzaileak dira eta airea zeharkatzen dute; beste batzuk, berriz, iheskor igarotzen dira.

Belatzak, adibidez, inguru zabaletara oso lotuta dauden harrapariak dira, eta, Erresuma Batuan, Belatz gorria (*Falco tinnunculus*) da arruntena. Espezie deigarri horrek hegoak gogor astinduz airean esekita gelditzen da, zelaian harrapakin txikien bila. Arrak tonu gorriak eta buru grisaxka ditu; habiaratzeko labarrak, harrobiak, eraikuntza zaharrak eta baita gure inguru urbanoko loreontziak ere aukeratzeko ditu.



Egun-argiko hegazti harrapariak

Inguru zabaletara oso lotuta dauden harrapariak dira belatzak, eta askotan gune urbanoetan ere ikus daitezke habiak egiten edo ehizan.

Belatz handia (*Falco peregrinus*) da erabakigarriena. Bere gezi itxuragaz, abiadura bizian pikatuak egiten ditu. Gure kostaldeko erlaitz helezinenak aukeratzeko, eta Erresuma Batuan, bikote ugaltzaileak bi edo hirukoak izan daitezke. Tamaina ertainekoa da, gorpuzkera sendoa du eta hegatziz elikatzen da; gure herrietan usoak eta arabazozoak ere ehizatzen ikus dezakegu. Harrapari handi horrek erreplika txiki bat ere badu, are trebeagoa dena: Belatz zuhaitz beltza (*Falco subbuteo*). Harrapari hori Afrikara itzultzen da negua igarotzera apiriletik aurrera. Eredu irekietan ehizatzen duen arren, zuhaitz handietan egiten du habia, korbidoen ohatze zaharrak egokituz. Berandu hazi ohi da, horrela ehizatzen errazagoak diren intsektu eta hegazti gazteen ugartasunaz baliatzen baita. Gurean abuztura arte egon ohi da, eta gazteak jaio ziren lekura itzultzen dira. Duela urte batzuk ugariagoak izan arren, pestiziden erabilerak asko eragin die.

Belatz txikiak (*Falco columbarius*) antzeko gorpuzkera du, baina txikiagoa da, eta iragaitzazkoek bezala jokatzeko du, nahiz eta batzuetan negutarra ere den; zelaia tximista bezala zeharkatzen ikus daiteke. Bitxia izan zen 2020ko udazkenean Elano Urdina (*Elanus caeruleus*) Kortiniñen (Getxo) ikustea. ◀

Ohiko Batzar Nagusia

DEIALDIA



946 76 02 66

Data: 2021eko ekainaren 17an

Ordua: 17:30 lehen deialdia, 18:00 bigarrena
eta 18:30 hirugarrena

Ander Deuna Ikastola, Gatzarriñe kalea, 47. SOPELA

Larrubizi Karlos Aretxabaleta *Txapel*

Askanpeko hondartza



Begirada kuxkuxeroetatik libre geundela, orduantxe hasi zen Julian nire lepo gazia musukatzen, miazkatzen, portuko jardunak gazituta ziur asko. Ez nuen instant hori apurtu nahi, gozoegia zirudien berri txarrekin garrazteko, eta bere erara utzi nion.

1 863ko Nikolas Deunaren eguna hel-tzeaz zegoen, baina ezin nuen erabakia atzeratu. Etxeko beharrianak zirela eta, osaba Toribiok Ameriketara aspal-di sortutako etxaldera alde egin behar nuen. Hala ere, ez naiz sekain-lurrekoa, izan ere Portu Zaharreko kaleak eta bazterrak besterik ez ditut ezagutu. Anbekokalleko arrantza-giroa, Aretxondo inguruan pilatutako umeen jira-birak, Asuarkako andreen txutxu-mutxuak, le-marien karraderak Erriberamuneko eskaile-retatik behera, Etxetxuko aterpean zaharrei entzundako itsas-istorio beldurgarriak, Askana plazan ama eta beste sareginekin batera abestutako kantuak... Itsaskumea naiz; aurkituko ote dut asago dagoen Nevada hori?

Begirada kuxkuxeroetatik libre geundela, orduantxe hasi zen Julian nire lepo gazia musukatzen, miazkatzen, portuko jardunak gazituta ziur asko. Ez nuen instant hori apurtu nahi, gozoegia zirudien berri txarrekin garrazteko, eta bere erara utzi nion; gure Askanpe hondartzako txoko hartan sarritan egin bezala. Bere bizarraren ziztatxoek berehala gorritu zituzten nire belarriak eta arima. Hala, jakitun balego bezala, hozkadatxo txikien bidez belarrietan aurkitu zuen nonbait gona azpian giltzarrazpo gordetzen nuen kutxa magikoaren giltza. Or-



Portu Zaharreko bazterrak besterik ez ditut ezagutu. Anbekokalleko arrantza-giroa, Aretxondo auzoko iturri inguruan pilatutako umeen jira-birak, Asuarkako ikuztegiko andreen txutxu-mutxuak, le-marien karraderak Erriberamuneko eskaile-retatik behera, Etxetxuko aterpean herriko zaharrei entzundako itsas-istorio beldurgarriak, Askana izeneko plazan ama eta beste sareginekin batera abestutako kantuak... Itsaskumea naiz oso-osoan.

duantxe heldu zitzaidan erabateko berotasuna hankartera; nire muxila bitsez beterik sentitu nuen, pozik, laster oso-osorik zabalduko denaren jakitun. Julianek, primeran ezagutzen nauenez gero, hortaz jabetu zen berehala, eta aukerarik galdu gabe bere esku arrailduak gona azpiko maskorrean sartu zituen. Maite ditut kresalak gogortutako atzamar sendo horiek, badakitelako zein den euren zeregina. Haatik, gutxi behar izan nuen bere eskuetako gogortasuna biguntzeko, brastakoan nire alutik isuritako hazi-jarioa tamainakoa izan zelako. Arnasestuka utzi ninduen, baina orduantxe nire txanda heldu zen, adio esatekoa.

Pentsatu gabe bere gainean eseri nintzen, gona altxatu eta bere mahoizko galtzak baldarki jaitsi nizkion, antsietatez, ez bainion azken instant horri ihes egiten utzi nahi. Horrela, bere itsas aingira heldu eta barruraino sartu nuen. Konturatu orduko trostan geunden, intzirika, eta gutxira, garrasi isil batek gure birikiak kresalez bete eta bihotzak urtu zituen. Julian ez zen momentuan konturatu, baina, oharkabea, itsasgorak ekarritako salabardo batekin eskua zauritu zuen eta odol hari txiki bat zerrion eskutik. Hura ikusterakoan hurrengo bota nion: «Biharkoan triste bahengo, lasai; orbanek pena jarria josiko ditek noizbait». ◀

SAN NIKOLAS IKASTOLA

SANIKOLAS.EUS

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Zientzia etxeko atarian Eduardo San Andres

Pitagorasen teorema eta bihurrikeri txiki bat



Nekez imajina dezaket irakaslearena baino gogobetegarriagorik den lanbidea. Mendetan zehar, gizakiok eraiki dugun ezaguera corpora ondorengo belaunaldira transmititzeak bizitza bat justifikatzen du.

Gizakiok jasan ditugun ezbehar askoren artean, Alexandriako liburutegiaren deuseztapena K.a. III. mendean nabarmendu nahi dut. Egiptoko bibliotekan 900.000 liburu inguru erre zirela uste da; garaiko Interneten parekoa bat-batean desagertu zen. Bertan, hainbat jakintsuk egin zuen lan; Euklides, besteak beste. Bera izan zen, hain zuzen ere, egungo matematikaren oinarri sendoak finkatu zituen *Elementuak* liburu ospetsuan. Horretan, aurretik bueltaka zebiltzan hainbat teorema jaso eta formalizatu zituen; horien artean, Pitagorasen teorema. Gogoratu zure eskolako urteak: triangelu zuzen batean A eta B katetoak izanik (angelu zuzena osatzen duten aldeak) eta C beste aldea, euren arteko harreman hau betetzen da beti: $A^2 + B^2 = C^2$. Kondairaren arabera, Euklidesek jasotako formula hau Pitagorasi bururatu zitzaion Samos uharteko gobernadorearen jauregian. Haren zain zegoela, lurrean diagonal batez zeharkatutako lauza karratuak behatzean bururatu omen zitzaion teorema fama-tua. Hala ere, teorema aurretik ezaguna zen matematikari txinatar, indiar eta egiptiarren artean. Aurreko formularen egokitzen diren hiru zenbaki osori hirukote pitagorikoa deri-

Irakaslearen eguneroko lana trabaz jorratuta dago, eta, irakasleok, batzuetan ikasleen kontrako mendeku txiki jostagarriak hartzen ditugu...

tzo, adibidez: 3, 4, 5 ($3^2+4^2=5^2$) edo 5, 12, 13 ($5^2+12^2=13^2$).

Pierre Fermat matematikari frantziarrak XVII. mendean, itxurazko Pitagorasen teoremaren orokortze batean, proposatu zuen ez zela existitzen hirukoterik (zenbaki osoekin) honako formularen egokitzen zenik $A^n+B^n=C^n$ 2 baino handiagoa izanik. Irakurtzen zegoen liburu baten izkina batean honakoa idatzi zuen: «Halako hirukote bat topatzea ezinezkoa denaren demostrazio zoragarri bat aurkitu dut, baina izkina estu honetan ez daukat lekurik azaltzeko». Handik gutxira hil zen Fermat, eta bere ustezko demostrazioa misterioz inguratuta geratu zen garaiko matematikarien eszeptizismoaren artean. 300 urte iraun zuen misterioak, 1994. urtean Andrew Wiles matematikari ingelesak formularen egokitzen den hirukoterik ez dagoela frogatu zuen arte; Fermaten susmoa, Fermaten teorema bilakatu zen.

Ostiral batean, institutuko klase astun baten ostean, matematikako irakasle batek proposamen bat bota zien ikasleei: asteburuan formularen egokitzen den hirukote bat topatzen zuena 10 edukiko zuen ebaluazioko nota finalen. Asteburuan orduak kalkulagailuarekin ibili eta gero, astelehenean egia atzeman zen: ezinezkoa zen. Irakaslearen mendeku txikia. ◀



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64



Ibilaldia, euskaraz kalakalata

Ibilbiderik gabeko Ibilaldia izan da aurtengoa. Hala ere, ezohikotasun horrek ez dio trabarik jarri jaialdiaren helburua betetzeari, eta, bestetik beste, Betiko eta Ander Deuna ikastolek lortu dute euskara nagusi izatea Sopela udalerrian. Eguzkia bidelagun izan zuten maiatzaren 30ean, eta ezin baino hobeto gozatu zuten Ibilaldia jaialdira gerturatu ziren milaka lagunek. Hainbat eremutan egokitutako lau gunetan bereizita, adin guztientzako egitarau oparoaz dibertitzeko eta euskaraz kalata bukatzeko parada izan zuten guztiek.

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIAK: HODEI TORRES ▶













**Jon
Martinez
Corral**


Nongoa
Urduliz.

Adina
26 urte.

Zertan dabil
Lanean.

**Noiz heldu
zinen?**
2017ko irailean.

**Noiz arte
bertan?**
Zehazteke.



Lurraldea
Alemania.

Azalera
357.022 km².

Hiriburua
Berlin.

Biztanleria
83.166.711 (2019).

Hizkuntzak
Alemana da hizkuntza nagusia. Daniera, frisia, sorbiera eta erromaniara gutxiengo hizkuntza ofizialak dira. Aachenen Öcher Platt izeneko dialektoa erabiltzen dute ere.

Moneta
Euroa.

«Paseoan hiru herrialde bisita daitezke hemendik»

IKER RINCON MORENO ►

Hizkuntza eskolan alemana ikasten urte pare bat egon ondoren, horretan gehiago trebatzeko xedez, urtebete-ko Erasmusa egin zuen Alemaniako Willhelmshaven hirian. Ikastaldia amaitu zitzaionean, Urdulizera bueltatu zen, baina handik gutxira alde egin zuen berriro ere, master-rra ikastera; oraingoan, Aachenera (Akisgran). «Ez nuen hiri hau ezagutzen, baina bertako unibertsitateak, RWTH Aachenek, master oso onak eskaintzen zituela entzun ondoren, bertora etortzea erabaki nuen, eta bertan segitzen dut, lau urteren ondoren». Gaur egun, Amprion sare-elektrikoa kudeatzen duen enpresan dabil lanean, eta oso gustura dago bertan. «Alemanian, lanpostu gehienek malgutasun handia eskaintzen dute langileentzat, bereziki lan orduei dagokienez, eta, niretzat, hori oso garrantzitsua da», aitortzen du urduliztarrek.

Aachen Karlomagnoren inperioaren hiriburua izan zen, VIII. mendean, eta hango alde zaharra txikia den arren, benetan ederra dela

aitortzen du Martinezek: «Ez zuen eraso nabarmenik izan II. Mundu Gerran eta, ondorioz, zutik jarraitzen dute eraikin historiko asko, katedrala eta udaletxea, esaterako». Hiria eza-gutzeko, baina, egun bat besterik behar ez den arren –oso txikia da–, egun gehiagoz geratzear gomendatzen du gazteak, oinez, 20 minutuan, Herbehereen, Belgikaren eta Alemaniaren mugara irits daitekeelako, eta, paseo bakar batean, hiru herrialde ikusi.

Jan-edanari dagokionez, Alemaniako beste hainbat lekutan bezala, ohikoa da jendea garagardoa eskutan ikustea: «Alemanian 16 urterekin ardo eta garagardoa edatea zilegi da». Ez da harritzekoa, beraz, edari horiekiko duten afizioa herrialde horretan.

Gazteak dienez, gainera, hiria atsegina da bizitzeko, baina kontuz ibili beharra dago hizkuntzagaz. Lagun baten adibidea jarrita, gogoratu du *egal* berba «berdin» esangura duela, baina ez «zeuri berdin ere» gisakoa, baizik eta «niri bost» moduan. Eta hala ibili ei zen bere laguna, hainbat egunez, «egun ona izan»-ei «niri bost» erantzuten. «Pentsa zelako lotsa!». ►

Lehen/Orain **Plentzia, 1960ko hamarkada**



ITURRIA: DAVID CRESTELO



Uribitakora



ALBE
Algortako
Bertsolari
Eskola

TESTUA
Aitor Fdez. de
Martikorena

DOINUA
Primaderari

ARGAZKIA
Hodei Torres

Lapurrak eta sorginak ez erre

*Irudi batzuk errazak dira
denboran-eta kokatzen;
hala, guk sua ikusiz gero
plaza erdian loratzen
eta jendea pozarren dantzan,
laster gara konturatzen
solstizioa ailegatuta
San Juan ari dela ospatzen...
Eguzkiaren indarra orduan
zaigu barruraino sartzen.*

*Argazki honek hori guztia
pentsarazten du, jakina;
hausnarketa bat sortzeko beste
arrazoi badakar, baina:
bertan agertzen diren guztiak
neskak dira, alajaina!
Toki publiko hori hartuta,
iraultza dute egina:
etxe barrutik plazara joan
ziren andreak antzina!*

*Zer kantu dute ahoan haiek
dantzan dabiltzan artean?
Zer gura dute kiskali dadin
gaiztakerien kaltean?
Sugeak eta sorginak ziren
biktimak garai batean;
baina denborak aldatu dira,
igar bedi abestean:
andre guztiak eta sorginak,
erre ez, utzi bakean!*



Xabier Madariaga Kazetaria

«Gizarte hobe bat egiteko baliagarria al da kazetaritza?»

Euskarazko telebista-kazetari ezaguna da Xabier Madariaga (Bilbo, 1981). Jerusalem korrespontsal lanetan ibili ondoren, gaur egun, ETB1eko *Ur Handitan* saioa aurkezten ikus dezakegu. Beragaz egon gara kazetaritza-lana, arrazakeria eta Palestina-Israel gatazka bezalako gaiak aztertzeko, eta baita bere orain arteko ibilbidea nolakoa izan den ezagutzeko.

TESTUAK: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Sitapha Savane-gaz batera, arrazakeriaz aritu zinen orain gutxi Leioan. Zein ondorio atera zenuten solasaldi hartatik? Berak bere giza eskubideen aldeko aktibistaren esperientziatik eta ni nire kazetaritza-munduko esperientziatik ikusi ahal izan genuen zein motatako arrazismoa dagoen gure gizartean. Galderetako bat izan zen ea arrazismoa ba ote dagoen gure gizartean, eta Sitaphak esan zuen galdera hori txarto eginda dagoela, bestela ez ginatekeelako hor eserita egongo. Arrazismoa egon badago, baina galdetu beharko litzateke zein motatako arrazismoa den, eta azaleratzea nola dagoen arrazismoa leku guztietan: gure erakundeetan, gure egunerokoa... Batez ere, aurreiritzi arrazistei erreparatu beharko genieke, eta nola horiekin egiten dugun aurrera gure egunerokotasunean, horretaz konturatu gabe. Aurreiritzi horien bitartez erortzen gara zurrumurruen aurrean, edo bidea ematen diegu, behintzat. Solasaldian ikusi genuen nola saia gaitezkeen horiei aurre egiten, eta nik planteatu nuen zurrumurruen aurka joan behar garela, azken finean, informazioaren gizartean gauden arren, inoiz baino desinformatuago dagoelako gizarte hau eta gezurrak inoiz baino errazago egiten duelako bere bidea sareetan. Horri aurre egiteko, kazetariok, zintzotasunez eta profesionaltasunez jokatzuz, gure erantzukizuna daukagu. Hala ere, jendeari ikusarazi nahi genion erantzuz-



©AMEKABI

Zurrumurruen aurkako solasaldia

Iragan apirilaren 28an, Xabier Madariaga kazetaria eta Sitapha Savane saskibaloi jokalaria ohi eta arrazakeriaren aurkako aktibista solasaldian aritu ziren gizartean dagoen arrazakeria eta komunikabideek horren aurrean duten paperari buruz.

kizunaren parte bat beraian ere badagoela; publikoak ere jakin beharko luke zeintzuk diren euren informazio-iturriak. Unibertsitatean, kazetarioi erakutsi digute objektiboak eta inpartzialak izan behar garela. Hori kontutan izan behar dugun arren, ez gara inpartzialtasunarekin itsutu behar; ni ezin naiz izan zurrumurruak aireratzen edo zabaltzen dituztenen bozeramaile. Hori oso argi ikusi nuen Palestinan lanean nengoenean: tanke batzuek ume batzuei tiro egin zieten umeek haiei harriak bota ondoren. Nik hori kontatzen dudanean, objektibotasunaren teoria muturreraino eramanda, ume horien bertsioa ateratzeaz gainera, Israelgo armadaren bertsioa ere atera beharko nuke adieraziz defentsa propioan egin zutela tiro, baina nik badaikit ez dela horrela izan, eta ni ezin naiz izan horren bozeramaile.

Komunikabideek etorkinen kontua nola transmititzen duten ere argi ikus daiteke hori, ez? Bai, Sitaphak esan zuen paperik gabe datozen etorkinen % 10 inguru direla pateran itsasoa gurutzatuz iristen direnak. Erregularizatu gabe dauden etorkinei buruz hitz egiten dugunean, zenbatetan erabiltzen dugu irudi hori? Etorkizunean, emigrantei buruz hitz egiterakoan, zenbatetan erabiliko ditugu Ceutako irudiak? Azkenean, beldurraren irudia besterik ez da. Kontuz ibili behar gara

erregularizatu gabe daudenei buruz hitz egi-
ten dugunean, Sitaphak esaten zuen bezala:
«Gehienak, % 90, hegazkinez etortzen dira».
Orduan, zergatik erakutsi beti patera? Hori
egitea desinformatzea da, baita «marea bel-
tza» bezalako izenak erabiltzea ere.

**Korrespontsal lanetan ibili zara Jerusale-
men, Parisen, Madrilen... Esperientzia ho-
rretatik zein ikasketa nabarmenduko zenu-
ke?** Niretzat, kanpoan lan egitea egin ahal den
lanik politena da. Fakultateetara hitzaldiak
ematera joaten naizenean beti esaten dut:
«Ahal baduzue irten kanpora». Gure lana oso
ederra da, eta beste herrialde batean erreali-
tate desberdinak ezagutzea zoragarria da nire-
tzat; urte haietan, ezberdin pentsatzen duena
ulertzen saiatzeko ariketa esango nuke izan
zela ikasketarik aipagarriena. Alde batetik,
gaur gauden moduko kafetegi batean, bere bu-
rue leherrarazteko prest zeuden batzuk ikus-
ten nituen, eta, bestetik, 22 urterekin fusila
hartu eta *checkpoint* batean beraien herria de-
fentatzeko zaintza-lanak egiteko prest zeude-
nak zeuden. Niretzat, bai bata eta bai bestea
ulertzen saiatzea izan zen ariketarik aberas-
garriena; kolono juduen zein palestinarren
ikuspuntua ulertzen saiatzea, hain zuzen ere.
Uste dut hori aplikatu dudala kazetaritza au-
rrera eramateko orduan: bestearen azalean
jartzen saiatzea, ez justifikatzea, baina bai
bere tokian jartzea. Horregatik, uste dut inoiz
baino beharrezkoagoa dela korrespontsalaren
lana eta errealtate horiek ondo kontatzea.

**Ekialde Hurbilean egon zinenetik, zer aldatu
da Israel eta Palestinaren arteko gatazkari?**
2003 eta 2006 artean Jerusalemen kafetegi
batean zerbait hartzea «arriskutsua» zen. Go-
goratzen dut kafetegi guztietan zegoela *check-
point* bat, eta guk teoria bat genuen: atera be-
gira jarri behar ginen, atetik pasako zelako
suizida, eta gertu ez bazeunden, metrailak ez
zizulako emango. Hilabetero kafetegi edo au-
tobus batean jarritako bonba leherketaren bat
entzuten zen hirian, eta gu berehala joaten gi-
nen gertatutako kontatzera. 2018an, *Ur Han-
ditan atzerrian* egiteko, berriro joan nintzen,
eta esango nuke hori bukatu dela. Erabat euro-
parra den Jerusalem aurkitu nuen, eta lehen-
go beldur hori desagertu egin zen. Ez diot he-
rrialde batek izututa bizi behar duenik, ez diot
hori inori desiratzen, baina bai ikusi nuen Is-
raelek bere proiektua asko egonkortu zuela,
batez ere Trumpek Israeli nahi zuen hiriburua
eman eta gero. Gatazka ez da amaitu Israelek
dena kontrolatzen jarraitu nahi duelako, eta,
azkenean, beraiek dutelako zartagina esku-
tik hartuta; Israelen botere militarra ezin da



Xabier Madariaga Idrin kazetaritzan lizentziatu zen

«Gure lana
oso polita da:
errealtate
desberdinak
ezagutzea eta hori
beste herrialde
batean egin ahal
izatea zoragarria
da. Ezberdin
pentsatzen duena
ulertzen saiatzeko
ariketa bat da,
besteak beste»

beste aldeak duenarekin konparatu. Bestalde,
orain, Israelen barruan bizi diren palestina-
rrak matxinatzen ikusi ditugu, hori ez dugu
lehenago ikusi. Arrazoia da herritar horiek bi-
garren edo hirugarren mailako biztanle bila-
katu dituztela, eta, noski, horrek nonbaitetik
eztanda egin behar zuen; harritzen nauena da
orain arte eztanda ez egin izana.

**Atzerrira bueltatzeko aukera izango bazenu,
zein herrialde aukeratuko zenuke?** New York
aukeratuko nuke, AEBetako barne funtziona-
menduak asko erakartzen nauelako. Baina ez
litzaidake arduratuko Jerusalem edo Parisera
buelatzea; bietan oso zoriontsua izan naiz.

**Jerusalemera joan zinenetik kazetaritza egi-
teko modua asko aldatu da?** Irakurle, ikus-
le edo entzulearengana iristeko moduak dira
gehienbat aldatu direnak. Nik uste dut hor



2003an, Nafarroako Unibertsitatean; orduetik, besteak beste, EITBn eta Berria egunkarian egin du lan.

galduta gaudela, nahiz eta esentzian gure lanak berdina izaten jarraitzen duen: errealitate batez ondo jabetu, asko irakurri, bertsio asko entzun eta hori kontatu. Gero, kontatzen duzun hori nola iristen den aldatzen ari da, eta uste dut oraindik galduta gaudela, ez kazetari bezala, baizik eta komunikabide bezala. Horrek gauza asko aldatzen ditu, eta bat-batean *feedback* asko dauzkagu: ikus-entzuleengandik informazio asko iristen zaigu, lehen helitzen ez zitzaiguna, eta hori gozamina da. Baina kazetaritza bera egiteko modua ez da horrenbeste aldatu. Esango nuke komunikabideek ikuslegoarengana iristeko modua aldatu dutela, sare sozialek dena aldatu dutelako.

Korrespontsal-lanak egin ondoren, *Ur Handitan*-en hasi zinen; nolakoa izan da aldaketa-prozesua? Oso polita izan da, azkenean, korrespontsal moduan egiten duzun lana pix-

«Esango nuke komunikabideek ikusleengana iristeko modua aldatu dutela, sare sozialek dena aldatu dutelako»

katxo bat zuk markatzen duzulako. Galdetu didatenean, beti esan dut korrespontsal izatearen onena dela buruzagiak urrun daudela, horrela zure airera ibil zaitezkeelako. *Te-leberri* edo *Gaur Egun* albistegiek oso erritmo konkretuak eskatzen dituzte, eta korrespontsalian hortik ihes egin dezakezu apur bat. *Ur Handitan* saioak ere denbora ematen dizu produktua apur bat mimatzeko; beraz, aldaketa hori egitea niretzako erraza izan zen. *Ur Handitan*-ek hori dauka: gaia lantzeko eta protagonistak ondo ezagutzeko aukera ematen dizu. Azkenean, gure lanaren alderik aberasgarriena da pertsonak ezagutzea eta beraiei errealitateetara gerturatzeko aukera izatea.

***Ur Handitan* hartu zenuenean zein izan zen eman gura izan zenion helburua edo jomuga?**

Humanoa, enpatikoa; nik uste dut gizartearentzat onuragarriak diren errealitate batzuk ezagutarazteko baliagarria dela hori. Gure lana egiten dugunean gizarte hobeago baten alde egiten dugu? Askotan hori galdetzen diogu gure buruari gaiak aukeratzeko orduan. Azkenaldian gehien mimatu dugun gaia ez bitarrena izan da, errealitate ezezagun bat deskubritu dugulako, eta uste dut hori dela gure lanaren alderik onena. Hainbati irekiko dizkio begiak generoari buruz egiten dituzten hainbat hausnarketa emanak direla ikustarazten diegunean; hori oso interesgarria dela uste dut. Transexualitatea landu genuenean ere, jendeak komentatzen zigun deskubritu diegula mundu bat, beti lotu izan dutelako hori prostituzioa eta drogekin eta, bat batean, nerabe eta umeekin zerikusia duen errealitate bat ikusarazi diegu. Zer gehiago eska daiteke?

Zure bizitza pertsonala oso agerian dago hainbat aldetan; kazetaritza-munduan hori ez da oso ohikoa. Zuk bilatutako zerbait da edo berez eman da? Hasiera batean, nire lanean horri buruz hitz egitea eskatu zidatenean, ezetz esan nien, batez ere uste nuelako EITB, nire lantokia, baliatzea ez zitzaidalako ondo iruditzen. Gero, egunkarian elkarrizketatu ninduten, eta gizarteko gaitxo bat izan behar zena domekako egunkariaren portadan joan zen; nire bikotekidea egunkaria erostera joan zenean, lotsaz ez zuen hartu. Geroztik, familia-eredu ezberdinak daudela ikustarazteko egin nuen EITBn. Horrekin, uste dut nire seme-alabei laguntzen diedala, batez ere. Baina, horren ondoren, erabaki nuen berriro ez egitea, horretan ez sartzea. Horri buruzko elkarrizketak emateko eskatzen didatenean ezetz esaten dut. Izan ere, kazetari naizen heinean, nire profesioagatik eta lanagatik nahi dut ezaguna izan. ◀

Gotzone Butron *Sardinerak* liburuaren idazlea

«Niretzako hau artelan bat da; ipuin ilustratuak ez dira umeentzako bakarrik»

ANDER ZARRAGA ▶

Joxepa sardina-saltzaile gaztearen abenturak biltzen dituen *Sardinerak* ipuin ilustratua argitaratu dute Gotzone Butron idazle eta bibliotekari urduliztarrak eta Kike Infame ilustratzaile bilbotarrak. Aldundiaren *Ipuinak* saileko bosgarren liburua da, Bizkaiko pertsonaia eta lanbide tradizionalak ezagutzera emateko liburu ilustratu hirueleduna, hain zuzen ere. Butronegaz egon gara liburuaz eta bere ibilbideaz gehiago jakiteko.

Nolakoa da *Sardinerak* ipuin ilustratua? Irakurketa desberdinak izan ditzake: alde bate-tik, Joxepak pertsonaiak bere amarekin eta portuarekin duen harremana eta bat-batean itsasoa ezagutzeko sentitzen duen desira; gero, beste irakurketa sakonago bat izan dezake, berak egiten duen bidaiaz, eta horrek bera-rentzako eta bere familiarentzako zer suposatzen duen.

Nolakoa izan da dokumentazio prozesua? Nire lehendabiziko abiapuntua zenbait liburu izan ziren, besteak beste, *Monologos de una sardinerana santurzana*, eta, horretaz gain, Santurtziko Itsas Museoa ere egon nintzen, sardina-saltzaileei buruzko atal polita baitago bertan; Eulalia Abaitua argazkilariaren irudiek ere asko lagundu didate. Blog batean informazioa aurkitu nuen, eta hor Plentziako sardinerak batzuk ere aurkitu ditut, gero liburuan sartu ditudanak; izan ere, sardinerak portu guztietan zeuden, eta herri batetik bestera ibiltzen ziren.

Nolakoa izan da Kike Infame ilustratzaileagaz lan egitea? Oso bitxia izan da, ez genuelako elkar ezagutu aurkezpenaren egunera arte. Testua egiteko eskatu zidaten, eta, gero, berari eman zioten ilustratzeko. Orduan, oso hunkigarria izan da bueltan jaso dudanean, irudiak nik pentsatu nituen modukoak direlako, benetan zoragarriak. Pentsatutako istorioa, lekuak eta pertsonaiak horrela plasmatuta ikustea oso ederra da.

Nola hasi zinen idazten? 50 urteak pasata nituela hasi nintzen idazten; artean, ez nuen ezer idatzi. Hala, kontakizunak idazteari ekin nion, eta, denborarekin, horiek luzatzen joan naiz. Orain arte, beste idazle batzuekin, lortu-

Gotzone Butronek eta Kike Infamek egin dute *Sardinerak* liburuaz. HODEI TORRES

Liburu digitalak

«Oso erosok dira bidaiatzeko eta, baina nik nahiago ditut betiko liburuak. Papera ez da desagertuko; uste dut elkarrekin biziko direla bakoitza bere funtzioarekin»

Omenaldia

«Ipuina omenaldi txiki bat da, bai sardinerei, eta baita nire amama biei ere, baserritarrek eta saltzaileak zirelako biak»

tako *accesit* batzuei eta jasotako sariren bati esker argitaratu ditut idatzitako lanak.

Zer kontatu ahal diguzu *Abusu auzo irakurleak* proiektuaz? Hamalau urte daramagu horrekin lanean, eta bere helburua da Bilboko auzo horretako eragile guztiak inplikatzeko, irakurketa sustatze aldera. Urtean zehar, hezkuntza zentroek eta liburutegiak programa ezberdinak egiten ditugu, besteak beste, Kultura Astea eta Liburu Azoka. Gure helburua da irakurzaletasuna zabaltzea.

Liburuzainaren lana irakurketa sustatzea ere dela uste duzu? Liburuzaina hitza ez zait gus-tatzen, ezta liburutegia ere; guk biblioteka dei-tzen diogu eta bibliotekariak gara. Aspalditik elkarguneak bihurtu dira bibliotekak, nahiz eta askok oraindik pentsatu isilik egon behar den leku zurruna dela; oso bestelakoak dira. Jendea bertan elkartzen da, eta liburutegiak gaur egun dinamizatuta daude, umeentzako eta nagusientzako hainbat ekintzekin. Beti ga-biltza gauzak asmatzen eta baita liburutegiak kalera ateratzen. Gure asmoa da irakurzaleta-suna gune guztietara zabaltzea. ◀

Haizea López Idazle getxoztarra

«Gizon baten izenordainaren atzean ezkutatzeari utzi nahiko nioke»

IKER RINCON MORENO ►

Getxo agertoki nagusi duen thriller mitologikoa argitaratu berri du Haizea Lópezek, *Búho* ezizenagaz. Bere udalerrian oinarritu du trama osoa, euskal kultura eta suspensea nahastuta. *La cueva de Mari* izeneko eleberria «sekretu, misterio, suspense, erotismo eta pasioz jositako lana» dela azaldu du idazle getxoztarrek.

Hauze ez da idazten duzun lehenengo lana. Noiz ekin zenion idazteari? Oso gazte hasi nintzen; hamabi urte nituela idatzi nuen lehenengo eleberri luzea, baina adinez nagusia izan arte ez nuen lehenengoa argitaratu. Idaztea beti izan da nire bizitzaren parte oso garrantzitsua.

Ordutik, 80 lanetik gora osatu dituzu. Ez da nolanahiko kopurua... Ordu asko ematen ditut egunero idazten, eta, gainera, irudimen hiperaktiboa daukat. Istorio bat amaitu ez dudana arren, beste berri batean pentsatzen hasten naiz.

Zaila da idazkuntzatik bizitzea? Idatzi ditudan eleberrietako 66 gizonetako izenordearekin argitaratu ditut. Errazagoa da literaturatik bizitzea gizon baten izenpean.

***Búho* ezinezagaz hasi zara liburuok sinatzen orain. Zergatik?** Nire liburuen atzean egon nahi nuen; aurpegia jarri. Baina askotan errepikatu didate nire izena komertziala ez dela eta, ondorioz, ez nuen jarri nahi. *Búho*, aldiz, deigarria iruditu zitzaidan berri bideari ekiteko.

Zeintzuk zailtasun dituzue emakumeek mundu horretan? Gaur egun, gehienek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortu dugula uste duten arren, hori errealtetetik oso urrun dago oraindik. Emakume batzuek arrakasta dute literaturan, jakina, baina gizon baten izenarekin askoz errazagoa da arrakasta lortzea.

Zer-zelako liburuak edo kontakizunak kontatzea gustuko duzu gehien? Edozein generorekin ausartzen naiz: erromantikoa, suspensea, historikoa... Denetarik idatzi dut. Baina,



80 eleberritik gora publikatu ditu, horietatik, 66, gizon baten izenagaz. © HAIZEA LÓPEZ

Etorkizuneko erronkak

«Momentu honetan, nire istorioen atzean egon ahal izatea da nire helburu bakarra: merezi dudana errekonozimendua izan eta mutil baten izenordainaren atzean ezkutatzeari utzi»

zalantzarik gabe, suspensea eta misterioa gustatzen zaizkit gehien.

Getxoko Kultur Etxeak zure azkenengo lanean lagundu zaitu, ezta? Bai, Getxoko Kultur Etxeak eleberrian inbertitu du 3.000 euroko laguntza emanez; mila esker berriro nigan konfiantza izateagatik.

Lan guztiak gaztelaraz idatzi dituzu. Zergatik ez ausartu euskaraz? Asko gustatzen zait gure hizkuntza, eta oso harro nago hitz egiteaz. Baina gaztelan irakurtzen dut, eta hobeto defendatzen naiz hizkuntza horretan idazten. Izan ere, idazteko tresna-kutxa bat behar da, eta nirea osoagoa da gaztelan; baliabide gehiago ditut istorioak kontatzeko modu horretan.

Eleberria argitaratu berri duzu; besteren bat duzu buruan orain? Bai, hurrengoa idazten ari naiz eta istorioaren laurden bat baino gehiago idatzi; «planteamenduaren» fasea amaitu berri dudala esan daiteke. *Udaren atzean* izenburua izango du, eta thriller erromantikoa izango da, euskal kulturaz beteta. ◀

Zinez diot **Undone**

Xamana animazioaren magia

Estatu Batuetako 70eko hamarkadako kazetaritza, politika eta historia uztartzen dira, adierazpen-askatasunaren kontrako erasoa eta horren.

TESTUA: **HODEI TORRES** ▶

Alma da *Undone* telesaiioaren protagonista. Emakume gaztea da, 28 urtekoa, auto-istripu baten ondorioz hiltzeko zorian egon zena eta erdi gorra dena; gainera, txikia zenean, bere aita galdu zuen. Ondorioz, barne zalantzak, batzuetan depresioa edota gizarte ereduaren nekez hitz egingo digu, lehenengo pertsonan, bere bizitzan eta kezketan murgilduz. Bere aitarekin topo egingo du, bat-batean agertzen zaionean, eta hortxe hasiko da animazioaren magia errealitatearen mugak apurtzeko baliabide moduan.

Daborduko denbora existitzen ez den espazio batean murgilduko gara telesail honetan,



Undone

Zuzendaria:

Raphael Bob-Waksberg

Gidoilariak:

Raphael Bob-Waksberg, Kate Purdy, Lauren Otero, Elijah Aron, Joanna Calo

Antzezleak:

Rosa Salazar, Angelique Cabral, Constance Marie, Bob Odenkirk, Cameron Gayden, Kevin Bigley.

Iraupena: 24 min

dimentsioek talka egiten duten horretan, eta irekitako zauriek inoiz baino min handiagoa ematen duten munduan jarraituko diogu protagonistari. Iragana itzuli da (bere aita) Almarri gogorarazteko bere oraina etorkizuna bezain zalantzazkoa dela, eta bere minak eta akatsak ahalmenak edo magia bihurtu ahal direla. Eskizofrenia edo xamanismoaren arteko erlazioa arakutzen du istorio hau, gure inguruan eta guk ere askotan zalantzan jartzen ditugun mugak bilatu eta suntsitzen dituelako.

Arlo teknikoan, esan behar dugu rotozkopia teknika erabili dela; benetako aktoreekin grabatu eta, gero, irudi horien gainean marraztuz animazio bihurtu dute. Ez da asmakizun berri bat, baina gutxitan erabili da telesaiioetan. Gainera, olioarekin margotutako paisai eta inguruak sartu dituzte, horrek ematen dizkion testura eta itxura bereziak –ikaragarriak dira–.

Almaren bizipenak, kezkak eta ametsak jarraituz, animazioaren bitartez momentu benetan eroak eta magiakoak lortu dituzte. ◀

Irakurrian **Rosa itzuli da**

Historia hurbilegia

Joseba Sarrionandiak, bere eskarmentuak hartaraturik, ezin gordinago eta errealago adierazi zuen presoak kartzelatik irten eta gero sentitzen duena:

TESTUA: **JOKIN DE PEDRO** ▶

Preso egon denaren gogo / kartzelara itzultzen da beti. / Kanean epaile, fiskal eta abokatuekin / gurutzatzen da / eta poliziek, identifikatu ez arren, / beste inori baino / gehiago begiratzen diote, haren / pausoa sosegatua ez delako / edo sosegatuegia delako. / Haren bihotz barruan / betirako kondenatu bat dago.

Horixe da, nolabait, Pako Aristiren eleberraren ardatza. Protagonista, 25 urteko kartzelaldia igarota, herrira (Sagastumera) itzuli da; baina ezer ez da berdina: lagunak, behinolakako ideologia-kideak, Euskadiren egoera politikoa, aurrerapen teknologikoak... dena aldatu da; Rosa, berriz, duela 25 urteko egorran dago, atxilotu zuten unean bezain kon-



Rosa itzuli da

Egilea:

Pako Aristi

Argitaletxea:

Erein

Urtea:

2018

Orrialde kopurua:

224

Jatorrizko hizkuntza:

Euskara

bentziturik bere ideal politikoez, bere borroka armatuaren legitimotasunaz. Erabat ezlekuan sentitzen da; gainera, ezker abertzaleko jendearen jarrerak eta jokabide berriak ez ditu ulertzen, gaitzesten ditu, haiek Rosaren pentsaera beti batekoa gaitzesten duten bezala. Bestalde, zelatatu eta probokatu egiten dute, kartzelaldia berriz ere luzarazi nahi lioketenak. Ama Maritxu da oinaze handiena ematen diona. Adinak eta alabaren kartzelaldiak faktura pasatu diote: burua nabarmen galdu eta errealitatearen pertzepzio eskasa edo aldizkakoa dauka, argialdi eta itzalaldiekin. Argialdi horietan alabak ez zekien gauza asko, amaren bizitzako istorio ez-kutu bat bilatzen jardun du hori aurkitu arte.

Idazleak hainbat presoren testigantzetan oinarritu eta inspiraturiko eleberrri gordina utzi digu. Irakurlearentzat agian ez da eroso izango liburuko hainbat adierazpen gogor, krudelak ia, irakurtzea. Halere, irakurri eta hausnartu ostean, gure historia hurbilaren —hurbilegiaren— ikuspuntu eta ispilu ezinbestekoa dela ohartuko da. ◀

Desagerraraz itzazu zure barizeak berme guztiekin Dermitek klinikan



Lehen kontsulta
eta ekografia
doan
dermitek
by Grupostoa



P.S.E. 144/16

INFORMAZIO GEHIAGO

Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea. P.S.E 144/16

Dermitek-en oso ziur gaude zain barneko laserraren eraginkortasunaz, eta, horregatik, urtebeteren buruan barize bera ateratzen bazaizu, tratamendua errepikatuko dizugu doan. Hala ere, tratatutako barizeen % 99,6 ez dira berriz ateratzen: horiek dira Dermitek klinikak lortutako emaitzak barizeak zain barneko laserrarekin tratatzean.

Dermitek 1999ean hasi zen armiarma baskularrak edo barize finak tratatzen, eta, Estatu Batuetan prestakuntza jaso ondoren, barize lodiak ere zain barneko laserrarekin tratatzen hasi ziren 2010ean. Harez geroztik, 2.300 kasutik gora tratatu dituzte. Bertako Flebologia Unitatea diziplina anitzeko talde batek osatzen du: medikuak, erradiologiako mediku espezialistak eta interbentzionistak, erizainak eta klinika laguntzaileak, besteak beste.

Dermitek klinikako talde medikoak nazioarteko hainbat kongresutan parte hartu du, puntako profesionalak egiten ari direna bertatik bertara ezagutu eta lortutako emaitzak partekatu eta alderatu ahal izateko. 2012an aurkeztu zen Dermitek-en zain barneko laserrarekin tratatutako lehen 50 pazienteen azterlana. Gainera, talde horrek 2019an aurkeztu zuen azterlan sarituan aurki daitezke 1.500 kasuko emaitzak, urtebeteko jarraipen-prozesuarekin.

Zain barneko laserra da nazioarte-mailan sarrien hautatzen den tratamendua

(Gold Standard): Amerikako eta Europako erakunde zientifiko nagusiek tratamendu hori gomendatzen dute safenektomiaren (kirurgia tradizionala), N Butil zianoakrilatoaren edo apardun esklerosiaren aurretik.

Zain barneko laserraz gain, Dermitek-ek beste tratamendu hauek ere eskaintzen ditu: N Butil zianoakrilatoa (itsasgarri gisa ezagutzen dena), ekografia bidez gidatutako apardun esklerosia eta kirurgia. Kasu guztiak ez dira berdinak, eta beharrak ere desberdinak izan daitezke. Esaterako, N Butil zianoakrilatoaren aukera egokia da gazteentzat, barize gutxi dituztenentzat edo orratzei beldurra dietenentzat. Tratamendu horrek hainbat azterlanen bermea jaso du, eta emaitza onak eman ditu bost urtera, baina oraindik ez da lehentasunezko tratamendutzat jotzen. Tratamendu horren aurretik ezinbestekoa da itsasgarriarekiko alergia posibleak antzematea; izan ere, substantzia hori ez da desagertzen eta tratatutako zainean geratzen da. Tratamendu horretarako ez da ziztadarik egin behar, azkarragoa da, eta, kasu gehienetan, ez da beharrezkoa konpresio-mediak erabiltzea.

Iraganean, kirurgia tradizionala jaso duten pazienteen kasuan, edo laserrarekin tratatu ezin diren oso zain bihurriak dituzten pazienteen kasuan, ekografia bidez gidatutako apardun tratamendua izan ohi da aukerarik egokiena.

Zainetako ultzerak



Barizeak tratatzen ez badira, azkenean, ultzera bat sor dezakete orkatilaren barnealdean. Dermitek-en, urte luzeetako ikerketa-lanari esker, hogeitertetik gorako bilakaera zuten ultzerak ixtea lortu dute. Ultzera horietako gehienek ospitaleetan aurretiazko tratamendua jaso zuten arrakastarik gabe, eta, zenbait kasutan, azal mentu saiakerak ere izandakoak ziren. Ultzera eragiten duen jatorria tratatuz gero, ultzera ixtea eta hark dakartzan mina eta ezintasuna desagerraraztea lortzen da. Dermitek klinikak izandako emaitza onak aurki daitezke 2017. urtean argitaratu zen azterlan batean.



DERMITEK

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 08:30-20:00
Zapatuetan: 09:00-15:00

Virginia Cobos Leioa Waterpolo Taldeko kapitain ohia

«Maila onean jarri dugu nesken waterpolo»

Leioako waterpolo taldean 12 urtez jokatu ondoren, Virginia Cobos kapitainak belaunaldi berriei egin die lekua. Pozik doala diosku, helburu guztiak eta are gehiago bete dituelakoan.

ANDER ZARRAGA ►

Betidanik igeriketan ibili dela dio Virginia Cobos santutxuarrak. Bilboko Maristas eskolako waterpolo taldean hasi zen jokatzeko, 14 urte zituela. Urte bi zeramatzean, Jon Lopez entrenatzaileak deitu zion, eta horrela hasi zen Leioan, waterpolo taldeko kapitaina izateraino.

Zein izan da arrazoi nagusia erabaki hori hartzeko? Apur bat denetarik egon da erabaki horren atzean; azkenean, gauza pertsonala izan da, batez ere, uste nuelako momentu ona zela taldea uzteko. Kirolari eta taldeari eman diot eman ahal nion guztia, eta beraiek ere eman didate niretzako zeukaten guztia. Gainera, nolabaiteko ziklo aldaketa bat ere da, ni naizelako taldeko jokalaririk nagusia, eta uste dut heldu dela momentua alde batera egiteko, datozenei ere lekua uzteko. Hala ere, momentu polita da, azken urte honetan aukera izan dugulako Ohorezko Mailan jokatzeko, eta hori ere itzela izan da niretzat. Ideala izango litzateke taldea kategoria horretan uztea, baina, azkenean, ezin izan da horrela izan.

Maila galdu duzue aurten. Denboraldi gogorra izan zuentzako? Bagenekien gogorra izango zela, eta nahiko aukera zeudela mailari ez eusteko. Hala ere, gogorra izan da astero partidu bat galtzea. Dena dela, uste dut pozik egon gaitezkeela, ez gara desanimatu, eta gure % 100 ematen saiatu gara azken momentura arte. Esango nuke gure eskuan zegoen guztia egin dugula.

Pandemiak asko eragin dizue aurten? Bai, COVID-19aren kontua oso gogorra izan da guztiontzako, eta ez bakarrik kirolean. Oro



Maristasen urte bi ibili ondoren joan zen Leioara Virginia Cobos. LEIOA WATERPOLO

Nola aldatu da nesken waterpolo 12 urteotan?

«Zorionez, nahikotxo aldatu da. Hasi nintzenean, Maristasen ez zegoen nire kategoriako nesken talderik, beraz, lehen urtean neska bakarra nintzen mutilen talde batean. Orduetik, bilakaera itzela izan da: talde gutxiak zituzten neskak kategoria guztietan, eta, gaur egun, gero eta neska gehiago daude jokatzeko dutenak. Esango nuke Euskal Herriko maila ere gero eta gorago doala, beraz, esan daiteke maila on batean jarri dugula Euskadiko nesken waterpolo»

har, nahiko kaltetu digu entrenatzerako eta partiduak prestatzerako orduan. Gainera, denboraldi hasiera ere nahiko berezia izan zen, eta gure Ohorezko Mailako debuta hila-bete eta erdi atzeratu behar izan zen.

Taldeagaz lotura mantentzen jarraituko duzu? Bai, noski. Esan diet ez diedala faltan botako, hor egongo naizelako. Azkenean, urte asko dira, eta nire bizitza osoa hor pasatu dut. Noski, uztearen erabakia ere ez da erraza izan, baina laguntzen nau pentsatzeak beste modu batera hor jarraituko dutela. Horregatik, ahal dudanean entrenamenduetara eta partidu guztietara joaten jarraituko dut; ahal dudanean heinean laguntzen segituko dut.

Uste duzu taldea bueltatuko dela Ohorezko Mailara? Aurten geure buruari «berri» etiketa hori jarri diogu, eta beste taldeek ez bezala, ez geneukan esperientziadun jokalaririk. Baina uste dut bueltatuko garela, ez dakit noiz, baina ziur nago indartsuago eta, batez ere, konfiantza gehiagorekin igoko garela. ◀

Easygas Eskubaloi Taldea Zilarrezko Mailara igotzeko play-offaren zain

Nesken taldeak historia egiteko aukera du

Ekainaren 4, 5, eta 6an, Berango eta Urdulizeko Eskubaloi Taldeko neskek Zilarrezko Mailara igotzeko fasea jokatu dute Valentzian. Kategoria horretara igotzeko aukera historikoa izango da hori.

ANDER ZARRAGA ►

Espainiako Estatuko bigarren maila litza-tekeenera igotzeko aukera izango dute Easygas Berango-Urduliz Eskubaloi Taldeko neskek. Valentzian lehiatuko dira ekainaren 4, 5 eta 6an, hango, Balearretako eta Kataluniako taldeen aurka. «Ez da erraza izango; talde katalanak nahiko konplexuak izaten dira», aurreratu du Diego Izquierdo taldearen entrenatzaileak. «Ez dugu ezer baztertzen: oso talde gazteagaz goaz, batzaz beste 20 urte dituzte, eta horrelako igoera fase bat jokatzeko dugun lehen aldia da», azaldu du.

«Oraindik ez dugu guztiz sinisten», dio Nati Alcortak, taldeko kapitainak. Aukera horren aurrean, jokalaria oso pozik eta ilusionatuta daude, eta euren helburua «dena eman eta ahalik eta gehien disfrutatzea» izango dela azpimarratu du kapitainak.

Euskal Ligan jokatzeko aritu da taldea aurrean, oso denboraldi «atipikoan», entrenatzailearen arabera: «Mundu guztiari eragin dio



Berango eta Urdulizko kiroldegietan jokatzeko partiduak. NOEMI GARCIA ARNAVAT

«Eskualde osoko taldea gara, izan ere, jokalaria Uribe Kostako herri guztietatik datoz, eta inguruko eskoletan lantzen dugu oinarria»

DIEGO IZQUIERDO
EASYGAS BERANGO-URDULIZ
ESKUBALOI TALDEKO
ENTRENATZAILEA

pandemiak, baita txapelketari ere; inoiz egin dugun aurre-denboraldi luzeena izan da: irailan hasi behar genuen eta urtarrilean hasi gara jokatzeko».

Orain dela 17 urte taldea osatu zenetik, eki-poak emakumezkoen kirolaren aldeko apustua egin du beti; izan ere, gaur egun, taldeko jokalaria gehienak neskek dira, eta azken urteetan hazkunde garrantzitsua izan dute.

Entrenatzaileak argi dauka taldeak Zilarrezko Maila lortuko duela: «Agian ez da aurrean izango, baina taldearen joera ikusita, eta dugun harrobia kontutan hartuta, horra helduko gara momenturen batean». ◀

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45 Algorta Telletxe 1 94 460 27 41

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisauna eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure sakelak gastu berriei egin beharko die aurre hilabete honetan. Horrez gainera, baliteke ikasketetan edo lanean nahiko estu ibiltzea.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zuk zeuk hedatuko duzun erakargarritasun handiari esker, mota guztietako pertsonak zureganatuko dituzu.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Azterketak amaitu dituzu, zorionak! A zer lasaitua, ezta? Orain emaitzen zain, zer gertatuko ote? Bitartean, aprobeitza ezazu denbora.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Oso ondo ari zara lanean, gogotsu. Urtebete besterik ez daramazu lanpostu berrian eta nagusiak pozarren dituzu. Segi horrela!



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Bihotz arloko harremanik ez baduzu, zuretzat oso garrantzitsua izango den norbait ezagutze-ko parada izango duzu egunotan; adi ibili!



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ustekaberik ez izateko, ordena ipini zure diru-kontuetan. Telefono dei bat oso onuragarria izan daiteke zure lan kontuetarako.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Urteko tristorak, une txarrak, estresa eta gauza okerrak kanpora; erre itzazu horiek denak San Juan suan!



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gogotsu zabilta aurten udan pentsatzen. Baina, zelako oporraldia izango da aurtengoa? Ez egin plan gehiegirik badaezpada ere...



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Duzun urduritasun horrek hausnarketa bat behar du. Argi ibili ikasketetan edo lanean atsekaberik nahi ez baduzu.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Dena ondo dagoenean agertu behar da betiko morroi hori, zuk zein den ondotoxoa jakin badakizuna. Ohi legez, izorratzeko dator, noski.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Autoa tailerrean daukazu, beste behin ere! Zer izango da oraingoan... Enegarrenez, utzi traste zahar hori eta erosi Barik txartela!



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Etxekoakaz eztabaidatu eta pikutara bidaliko dituzu! Ondo pentsatu gauzak, hobe barkamena eskatzea gurasoenera bueltatzea baino...

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK CURSOS INTENSIVOS DE VERANO 2021

1-23 UZTAILA-JULIO (85 eskola-ordu / horas lectivas)
MAILA GUZTIAK / Todos los niveles

Ordutegia / Horario: 08:00 - 13:30

Aurrematrícula ekainaren 25era arte / Prematrícula hasta el 25 de junio

2-23 IRAILA-SEPTIEMBRE (48 eskola-ordu / horas lectivas)
B1-B2-C1 (azterketak prestatzeko)

Ordutegia / Horario: 09:00 - 12:00

Aurrematrícula uztailearen 23ra arte / Prematrícula hasta el 23 de julio

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu





Ilunabarra

Azer ederra eguzkiaren **ostentzea** zerumugan! **Ilunabarra** esaten diogu, besteak beste, naturaren opari horri. Berba ederra da ilunabarra, eta morfologiaren ikuspegitik, gutxienez osagai bi ditu bere baitan: **ilun** + **nabar**.

Lehenengoa, **ilun**, erabilia dugu egun: *kale iluna*, *pertsona kopetiluna*, *iluntzean etorriko da...* baina erromatarren garaian ere erabiltzen **ei** zen (k. o. I.-III. mendeetan). Izan ere, Akitaniako garai hartako hilarrietan **ilun** forma ageri da euskal jainko-izenen artean: *Ilunno* eta *Astoiluno*. Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera, baliteke Bonaparte printze **euskalaria** zuzen egotea, **ilun** formaren barruan (*h*)il (gaur, ilargia) elementua ikusi uste izan zuenean.

Edozelan ere, semantikoki badirudi argitasun eskaseko egoera adierazten duela. Baina ilunabar berban, **ilun** formak atzean **nabar** forma dauka. Eta **nabar** barik, **abar** balitz? Baliteke, baina kontuan hartuta **goiznabar** berba ere badagoela, logikoa da pentsatzea elementua **nabar** dela, eta ez **abar**. Eta semantikaren aldetik, esanahi bikoitza **leukake** nabar horrek. Batetik **arrea**, pardo. Eta bestetik, kolore askotakoa. Zelan da posible, baina, hitz batek berak hain kolore desberdinak adieraztea? Agian kolore bi horiek (arrea eta koloreanitza) ez direlako hain desberdinak. Beste era batera esanda. Kolore asko nahasten direnean, azken emaitza marroi antzeko kolorea izaten da. Beraz, baliteke hortxe egotea kolore bion arteko lotura semantikoa.

Bitxia da, bestetik, zelan hizkuntza guztiek ez duten erreferente bera **ilunabar** hitzaren baliokidetzan. Esaterako, ingelesez **'sunset'** esaten da, eguzkiari erreferentzia eginez; eta gaztelaniaz, **'atardecer'**, egunaren atala zehaztuta. Gurean, berriz, **ilunabar** hitzaren erreferentzia erabat kromatikoa da, iluntasun koloretsua, alegia. ◀



Berba azoka

Ostentze

Ostendu aditzetik sortutako aditz-izena. Ostendu aditzak ezkutatu, gorde esan nahi du. Uribe Kostako aldaeran ostu esaten da: *txabolaren ostan ostu da txakurra*.

Ilunabar

Arrastiri, ilunaurre, ilunsenti, iluntze.

Ilun

Argi edo argitasun gutxi duena, edo argitasunik gabea.

Nabar

Kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa; orban ilunak edo arreak dituen.

Iluntze

Gauaren hasiera. Uribe Kostako aldaeran ilunde esaten da: *ilundean ailega gintzazan etxera*.

Ei

Omen.

Euskalari

Euskara aztertzen edo ikertzen duen hizkuntzalaria.

Goiznabar

Ilunabarraren kontrakoa, goiztiri, goizalde, egunsenti, egunabar.

Leukake

Edukiko luke.

Arre

Lur ilunaren kolorekoa.

Sunset

ilunabarra ingelesez. Hitz konposatua: *sun* (eguzkia) + *set* (jarri, ezarri).

Koloreak eta zuriaren balantzea

Kolore biziak ala asegabeak? Horixka ala urdintsua?

Gure argazkietan dauden koloreak zelan erabili eta kontrolpean edukitzen ikasiko dugu oraingoa.

Zuriaren balantzea edo «WB»

Zuriaren balantzea eta kolore-tenperatura oso lotuta daude. Kolore-tenperatura Kelvin-en definitzen da; hau da, argi iturri zehatz baten kolore-tenperatura neurtzeko erabiltzen den eskala. Zuriaren balantzean Kelvinak deskribatzeko nomenklatura «K» besterik ez da. Argazkilari askok «Kelvin graduak» deitzen diete.

Kolore-tenperatura argiaren propietate fisiko bat da, eta argi-iturri bakoitza kolore-tenperatura desberdin batekin identifikatzen da.

Adibidez, kandelen argia eta tungstenoa oso beroak dira kolore-tenperaturari dagokionez, 1500-3000 K. arteko balioekin; aldiz, argi fluoreszentea 4000-4500 K inguruan kokatuko litzateke. Eguneko argiaren kolore-tenperatura nahiko neutroa da, 5000-6500 K-koa, eta, oro har, kanpoan tiro egiteko aukerarik onena izango da. Hala ere, zerua hozten bada, baliteke zuriaren balantzea doitu behar izatea, 7500 K ingurura, tonu urdinei berotasuna gehituta konpentsatzeko.

Kameraren kolore-tenperaturaren eta zuriaren balantzearen doikuntzak kontraesankorrak izan daitezke. «WB» automatikoa dagoenean, zure kamerak automatikoki konpentsatuko du kolorearen tenperatura. Hala ere, zure irudia hotzagoa izatea nahi baduzu, kolore-tenperatura beroagoa aukeratu beharko duzu, eta alderantziz, zure kamerak kontrako kolore-tenperaturarekin konpentsatu ahal izateko.

WB preset moduak

Orokorrean, automatikoa erabiliko dugu, baina hauek dira zuen kameretan topatuko dituzuen zuriaren balantzearen preset-ak.

Tungstenoa



2800 K

Fluoreszentea



4000 K

Flasha eta eguzkia



5500 K

Lainotuta



6000 K

Gerizpea



7500 K

Automatikoa ala manuala?

Automatikoa erabiliz gero, kamerak irakurriko ditu eszenan agertzen diren koloreak, eta erabakiko du zein den egokia. Batzuetan, batez ere argi-iturri ezberdinak daudenean, arazoak sortuko zaizkigu eta tonu arraroak aterako zaizkigu argazkietan. Kasu horietan, hoberena da preset moduak erabiltzea, nahi dugun kolorea edo tonuari lehentasuna emanaz.

RAW edo JPG-n?

Aurrerago hitz egingo dugu kameraren argazkien formatuaz, baina garrantzitsua da jakitea JPG formatuan aritzen garenean zuriaren balantzea beti ondo erabili behar dugula, behin argazkia eginda, moldatzeko aukerarik ez dugulako izango. RAW formatua negatibo digitala da, eta, horri esker, argazkia egin ostean oraindik ere aukerak izango ditugu irudiaren nondik norakoak moldatzeko.



Zirkulu kromatikoa

Koloretako zirkulu kromatikoa gorri, hori eta urdinean oinarrituta dago.

Hiru ordena daude: kolore primarioak, sekundarioak eta tertziarioak.

RYB kolorean lan egiten denean, kolore primarioak gorria, horia eta urdina dira. Hau da, gainerako kolore guztiak eratortzen diren hiru kolore garbiak dira. Lehen mailako bi kolore hartzen baditugu, eta berdin konbinatzen baditugu, bigarren mailako kolorea lortuko dugu. Azkenik, kolore tertziarioa kolore primario eta sekundarioaren konbinazioa izango litzateke.



Kolore aldagaiak

Zuen argazki-ibilbideko uneren batean negatibo bat edo ar-txibo digital bat –seguru baietz– errebelatu baduzue, HSL (hue, saturation, luminosity) kontzeptua ezagutuko duzue: tonua, saturazioa eta argitasuna.

Tonua: kolorea bera da; kolorearen esentzia (berdea, horia) soilik tonuaren ordez «kolore» hitza erabiltzen dugu, baina zentzua berbera da.

Argitasuna: tonu baten argitasunarekin edo iluntasunarekin lotzen da. Zenbat eta distira gehiago, orduan eta argiagoa; eta zenbat eta distira gutxiago, orduan eta ilunagoa.

Saturazioa: kolorearen garbitasun-maila da. Zenbat eta saturazio handiagoa, orduan eta kolore purutasun handiagoa; eta zenbat eta saturazio txikiagoa, kolore «itzalagoak», gris neutrotzat jotzen den minimora iritsi arte.

Hotzak ala beroak?

Ez da berdina argazki urdinxka bat edo ilunabar laranja bat, koloreek islatzen dizkiguten sentimendu edo sentsazioak oso ezberdinak direlako. Koloreen ezaugarriak edo gure gizartean duten kutsua zerrendatuko dugu orain, zuek baliabide bezala erabil ditzazuen zuen argazkietan.

Urdina: bakea, lasaitasuna, hotza, harmonia, garbitasuna, zerua eta ura.

Bioleta: erregetza, noblezia, espiritualtasuna, misterioa, lorea eta jakinduria.

Gorria: emozioa, desioa, energia, beroa, intentsitatea eta pasioa.

Laranja: energia, oreka, gogo bizia, berotasuna eta bizitasuna.

Horia: poza, zoriontasuna, baikortasuna, eguzkia eta adiskidetasuna.

Berdea: natura, ingurumena, osasuna, zortea, berrikuntza eta emankortasuna.

Hotzak: kolore lasaigarriak, urdinak bezalakoak.

Beroak: kolore kitzikagarriak, hala nola gorriak, laranja eta horiak.

Mistoak: esanahi fresko eta beroa duten koloreak, hala nola bioleta eta berdea.

Neutralak: kolore lurtarrak bateratzea, hala nola marroiak, grisak, beltza eta zuria.

Harmonizazioa: elkarren ondoan kolore-gurpilean edo zirkulu kromatikoan agertzen diren koloreak eta elkarrekin ondo lan egiten dutenak.

Kontrastatzen: beste kolore batzuekin bereizitako koloreak kolore-gurpilean.

Osagarriak: askotan elkar jotzen duten gurpilaren kontrako muturretako koloreak.

Kolore biziak

Koloreen teoria hau guztia praktikan jar ezazue, eta bilatu zuen argazkietan koloreen konposaketak. Batzuetan, kolore asko ager daitezke, eta beste batzuetan kolore gutxiarekin argazki ikusgarriak lortuko dituzue, jolastu eta gogoratu gure erabakia dela zer garrantzia duten argazkien koloreak.



Hurrengo hilabetea:
Konposaketa

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


Oporrak non?

Marraztu zeure burua uharte galdu honetan. Nor marraztuko duzu aldamenean?
Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



Dominoan

Osatu lauki zuriak, ondoko domino-zati hauek zentzua izan dezaten.



Bilatu

Zenbat limoi-erdi ote daude koadro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude: bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margotu gustuko dituzun marrazkitxoak.



Nolakoak uste duzu izango direla aurtengo udako jaiak?



ANDER LARAUDOGOITIA
PLENTZIA

Beste gauza batzuk egiteko aukera izan beharko litzezke, non jendearen parte hartzea handiagoa izango den. Orain arte, erlijio-jaiak izan dira, baina jendea bestelako jaiak antolatzen utzi beharko zitzaion.



AMAIA ARBELOA
PLENTZIA

Segurtasun-neurri batzuk bermatu beharko lirateke. Baina nik uste dut jaiak egin ahal direla, eta egin beharko liratekeela, herriarentzat eta antolatzaileentzat beharrezkoak direlako.



XABI CARBAJO
SOPELA

Uste dut ez direla jaiak egin behar. Hobe izango litzateke festarik ez egitea, eta, horrela, alde txarrak aurreztuko ditugu. Azken finean, jendeak ez lituzke babes-neurriak errespetatuko.



IZARO HERNANDEZ
ARMINTZA

Uste dut ez dela jairik egongo oraindik. Guztiok ditugu gogoak festan joateko, baina, momentuz, ez dirudi ezer egongo denik; hala ere, zerbait eginez gero joango nintzateke.



NORA ROUSSE
PLENTZIA

Ondo egongo litzateke, baina, egoera ikusita, ez dut uste egongo direnik. Gainera, jendeak ez lituzke segurtasun-neurriak beteko; hala ere, kontzertuak eta egingo balituzte ni joango nintzateke.



HERRI TORRONTegi
GORLIZ

Herriko jaiak egitea zaila da, hainbat jende batzen delako, baina festa puntualen bat egin beharko litzateke: kalejira, poteoa eta giro apur batekin. Baina, gaur gaurkoz, oso zaila iruditzen zait.

Martxan EUSKARAZ SEGURU

Udako ikastaro trinkoak
Maila guztiak
2021ren mailak egiaztatzeko ikastaroak



UZTAILA

Hasiera-data 2021/06/29
Amaiera-data 2021/07/21



5 ordu egunero, 85 ordu guztira
asteleheneretik ostiralera
8:00-13:30 **93,50 €**
Aurrematrikula-data
2021/05/27tik aurrera

Matrikulazioa
2021/06/14tik - 2021/06/22ra
Euskara ikasteko diru laguntza jasotzeko aukera
ikasteko diru laguntza

Isarragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA
t 94 464 00 02 • Faxa 94 480 25 80



IRAILA

Hasiera-data 2021/09/02
Amaiera-data 2021/09/24

5 ordu egunero, 85 ordu guztira
asteleheneretik ostiralera
8:00-13:30 **93,50 €**
Aurrematrikula-data
2021/05/27tik aurrera

Matrikulazioa
2021/07/06tik - 2021/07/12ra
Euskara ikasteko diru laguntza jasotzeko aukera
ikasteko diru laguntza

euskaltzaindia@leioa.net
www.euskaltzaindia.net

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru liburuetako bat jaso ahal izango duzu; aukeratu gogokoen duzuna.

Hiru emanaldietako batera joan gura baduzu, ekainaren 23a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein liburu gura duzun adierazi): hiruka@hiruka.eus edo bete.hiruka.eus webguneko Zozketa ataleko formularioa.



Sariak

Sardinerak



Gotzone Butron urduliztarrak, Kike Infamegaz batera, sortutako liburu ilustratu polit-polita.



Ibaizabal argitaletxearen eskutik, sei urtetik gorako umeentzako liburu sorta, esku-eskura.

Ibaizabalen liburu-sorta

Zozketa EHZ festibalerako prest?

Zuzeneko musika, tailerrak... Uztailaren 2tik 4ra bitartean Irisarrin (Behe Nafarroa) kulturaz blaitzeko bonua zozkatuko dugu oraingoan. Adi! Bertara joateko, PCR negatiboa eroan beharko da.

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 17a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (adierazi zein otzara-mota irabazi gura duzun): hiruka@hiruka.eus edo [bete Zozketak ataleko formularioa](http://bete.zozketak.eus).



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Etxean jaso nahi baduzu

egin zaitez **HIRUKA**lagun!



944 911 337 | 688 812 368 | administrazioa@hiruka.eus

